

NORTON LIZENTZIA-AKORDIOA

GARRANTZITSUA: IRAKURRI ARRETAZ LIZENTZIA-AKORDIOAREN BALDINTZAK ETA ZEHAZTAPENAK (“LIZENTZIA-AKORDIOA”) SOFTWAREA ERABILTZEN HASI AURRETIK (BEHEAN ZEHAZTEN DEB BEZALA). SYMANTEC KORPORAZIOAK ETA/EDO LIZENTZIADUN BAIMENDUAK DIREN BERE AFILIATUAK (“SYMANTEC”) SOFTWAREAREN LIZENTZIA EMAN NAHI DIZU, ZURI, EDO SOFTWAREA ERABILIKO DUEN ENPRESA EDO LEGEZKO ENTITATEARI (BEHEAN “ZU” EDO “ZURE”), BALDIN ETA LIZENTZIA-AKORDIOAREN BALDINTZA GUZTIAK ONARTZEN BADITUZU BAKARRIK. ZURE ETA SYMANTEC-EN ARTEKO KONTRATUA DA HAU, LEGEZKOA ETA LEGEAREN BIDEZ BETEARAZ DAITEKEENA. PAKETE HAU IREKITZEN BADUZU EDO ZIGILUA HAUSTEN BADUZU, “ADOS NAGO” EDO “BAI” BOTOIA SAKATZEN BADUZU, EDO BESTE EDOZEIN MODUTARA ONARTZEN DUZULA ADIERAZTEN BADUZU ELEKTRONIKOKI, EDO BAITA SOFTWAREA ERABILTZEN BADUZU ERE, LIZENTZIA-AKORDIOAREN BALDINTZAK ETA ZEHAZTAPENAK ONARTUKO DITUZU. BALDINTZA ETA ZEHAZTAPEN HAUEKIN ADOS EZ BAZAUDE, SAKATU “UTZI” EDO “EZ” EDO “ITXI LEIHOA” BOTOIA, EDO ADIERAZI EZADOSTASUNA, EDO UTZI SOFTWAREA ERABILTZEARI, ETA JARRI HARREMANETAN (i) SALTZAILEAREKIN EDO SYMANTEC-EN BEZEROENTZAKO ARRETA ZERBITZUAREKIN, HARREMANETARAKO 7. ATALEKO XEHETASUNAK ERABILITA, EKITALDI HONETARAKO (BEHEAN ADIERAZIA) LIZENTZIAGATIK ORDAINDUTAKO ZENBATEKOA NOLA BERRESKURATU JAKITEKO (BIDALKETA, ERABILERA ETA ZERGAK IZAN EZIK, BIDALKETA, ERABILTZEA ETA ZERGAK ITZULTZEN DITUZTEN HERRIALDE ETA ESTATUETAN IZAN EZIK) NAHI DUZUNEAN, URTEKO HARPIDETZA EROSI DENETIK HIRUROGEI (60) EGUNEKO EPEAN, EDO HOGEITAMAR (30) EGUNEKO EPEAN HILEKO HARPIDETZA KASUETAN, EDO (ii) ZURE HORNITZAILEAREKIN (BEHEAN ZEHAZTUA) SOFTWAREA HORNITZAILEAREN BITARTEZ LORTU DUZUNEAN DIRUA NOLA BERRESKURATU JAKITEKO.

1.

Lizentzia:

Lizentzia-akordio honekin batera doan Softwarea eta dokumentazioa (produktu paketea barne) (“Dokumentazioa”) (oro har, “Softwarea”) Symantec-enak edo bere emaileenak dira, eta copyright bidez daude babestuta. Symantec eta bere emaileak Softwarearen jabeak izaten jarraitu arren, Lizentzia-akordioa onartzen duzunean, zenbait eskubide izango duzu Lizentziak irauten duen bitartean (behean zehaztuta) Softwarea erabiltzeko. Berariaz Zuri eman ez zaizkizun eskubide guztiak Symantec-ek edota bere lizentziadunek gordetzen dituzte. “Lizentzia-aldia” has daiteke (a) Softwarea ordenagailuan, ingurune birtualean edo gailu mugikorrean lehenengoz instalatu edo erabiltzen duzunean (“Gailua”), edo (b) Lizentzia-akordioa onartzen duzun egunean, edo (c) Zure Softwarea Norton-en lineako dendan erosi baduzu, erosketa egin zenuen eguna, edo (d) Softwarea produktu anitzen eskaintzaren parte gisa jaso baduzu anitz horien paketearen erosketa burutu den egunean edo, (e) Softwarea erabiltzeko eskubideak Symantec-en Lizentzia-akordio honetan deskribatutako Softwarea erabiltzeko eskubideak Symantec-en baimena duen hornitzaile batetik lortu badituzu (“Hornitzailea”), Hornitzaile horrek zehaztutako egunean. Lizentzia aldiak Softwarea eman zizun banatzaile, birsaltzaile edo Hornitzaile baimendutik eskuratutako Dokumentazioan edo dagokion den transakzio dokumentazioan zehazten dena izango da. Softwarea automatikoki desaktibatu ahal izango da eta ez-operatibo gelditu Lizentzia Aldi hori bukatzen denean, eta ez duzu eskubidea izango Softwarearen eguneratutako edukiak edo funtzioak jasotzeko Lizentzia Aldia berritu arte. Lizentzia Aldia berritzeko harpidetzak (i) Symantec-en laguntza politikaren arabera egongo dira erabilgarri, zeina https://support.norton.com/sp/en/us/home/current/solutions/v74023230_EndUserProfile_en_us webgunean ikus daitekeen, edo (ii) zure Hornitzaileak emango dizkizu Hornitzaile horren politiken arabera, Softwarea zure Hornitzailetik lortu baduzu.

Lizentzia-akordio honek arautzen ditu Symantec-ek eskura jarri ahal dizkizun argitalpen, berrikusketa, eguneratze edo hobekuntza guztiak. Dokumentazioak aldatu ezean, hauek dira Zure eskubide eta obligazioak Softwarea Lizentzia-akordio honen arabera erabiltzeko.

Lizentziak irauten duen bitartean, hauxe egin ahalko duzu:

- A. Softwarearen kopia bakarra Gailu bakarrean erabili. Dokumentazioan edo dagokion transakzioaren dokumentazioan Softwarea eman zizun banatzailearen, birsaltzailearen edo Hornitzailearen Gailuen kopuru edo kopien kopuru handiagoa zehazten bada, zehaztaperen horien arabera erabili beharko duzu Softwarea.
- B. Egin ezazu softwarearen kopia bat babeskopia gisa, edo kopian Softwarea zure Gailuaren disko gogorrean eta gorde jatorrizkoa babeskopia gisa;
- C. Softwarea sarean erabili, baldin eta Softwarearen kopia lizentziadun bana baduzu sare horren bidez Softwarea atzi dezakeen Gailu bakoitzeko;
- D. Transferitu behin betiko Lizentzia-akordio honekin emandako zure eskubide guztiak beste pertsona edo entitate bati, Zuk Softwarearen kopiari gordetzen ez duzula eta transferentzia Lizentzia-akordio honen baldintza guztiak beteaz egiten dela ziurtatuz. Zalantza guztiak saihesteko, transferitzen ari den Softwarea produktu anitzeko sorta bateko zati bat bada, Softwarea hartzen duen sorta horretako produktu guztien eskubideak transferitu beharko dituzu. Lizentzia-akordio honen arabera, ez da Zure eskubideen transferentzia partziala onartzen eta hori burutzeko ahaleginak baliogabeak izango dira. Esaterako, baimendutako banatzailearen, birsaltzailearen edo Hornitzailearen transakzioari aplikatu behar zaion dokumentazioak edo Dokumentazioak eskubidea ematen badizu Softwarearen hainbat kopia erabiltzeko, edo Softwarea hainbat Gailutan instalatzeko, kopia horiek guztiak eta Softwarea Gailu guztietan instalatzeak bakarrik balio du. Zalantzarik ez edukitzeko, transferitzeko aurreko eskubideak ez dira aplikatuko Softwarea Zure Hornitzailetik eskuratu baduzu; eta
- E. Softwarea azpian xeda litekeen onartutako beste edozein erabileraren arabera erabili.

Softwarea zuk bakarrik erabiltzeko lizentziatua dago, ezin daiteke modu komertzial batean erabili.

Softwarearen erosketan helburu komertzial batetarako ez dago autorizatua.

Ezin duzu hau egin eta ezin diozu inori eman hau egiteko baimena:

- A. Softwarearen edozein zati azpi-lizentziatu, alokatu edo akuran eman;
- B. Softwarearen alderantzizko ingeniari, deskonpilatzea, desmuntatzea, eraldatzea, itzultzea edo Softwarearen jatorri kodea ezagutzeko edo Softwaretik lan eratorri sortzen saiatzea.
- C. Softwarea hornitu, eskaini edo eskuragarri jartzea instalazioen kudeaketa, ordutegi partekatze, zerbitzu hornitzaile edo zerbitzuak emateko bulegoen akordio zati gisa,
- D. Softwarea Lizentzia-akordioak baimendu ez bezala erabili.

Softwareak hirugarrenen funtzioak ekar ditzakete, edo hirugarrenen webgune bateko edukira sarbidea izan dezakete. Eginbide, funtzio eta eduki horiek hirugarren zerbitzuen baldintzen eta pribatutasun-gidalerroen mendekoak izango dira.

2. Softwarearen eta Edukiaren Eguneratze Automatikoa:

A. Plataforma guztiak ez dituzte merkaturatze, errebisio, hobekuntza edo ezaugarri guztiak izanen. Eskubidea izango duzu Softwarearen tresna eta bertsio berriak jasotzeko Symantec-ek, hark nahi duenean, tresna eta bertsio horiek Zure Lizentzia Aldian zehar erabilgarri jartzen ditu eta. Symantec etengabe ari da lanean bere produktu eta zerbitzuen erabilgarritasuna eta funtzionamendua hobetzeko. Softwarea optimizatzeko eta Softwarearen azken bertsioa jaso ahal izateko, onartzen duzu Softwareak eguneratze eta bertsio berriak deskarga eta instala ditzakeela, Symantec-ek, bere erabakimen hutsean, eskuragarri ezarri ahala. Symantec-ek eguneratze eta bertsio berri horiek bidaltzea eta Zure Gailuan jasotzea onartzen duzu. Gainera, Symantec-ek Softwarearen zure erabilerari lotutako baldintzak eta zehaztaperenak alda ditzake eguneratze eta bertsio horiek islatzeko, eta eguneratutako baldintza horiek onartzen dituzu zuk. Aldaketa horiek onartu ez badituzu, Softwarea aldaketak egin ondoren erabiltzen jarraitzeko, berrikusitako baldintzak onartu beharko dituzu.

B. Software batzuk aldizka eguneratzen diren edukiak erabiltzen dituzte, hurrengoak besteak beste: birusen aurkakoek eta software maltzurten aurkakoek birusen definizio berriak erabiltzen dituzte; espioitza aurkako softwareek spyware definizioak erabiltzen dituzte; spam aurkako softwareek susebakiaren arau berriak erabiltzen dituzte; edukiak iragazteko eta phishing aurkakoek URL zerrenda eguneratuak; zenbait softwareen susebakiaren arau eguneratuak erabiltzen dituzte; hauskortasuna ebaluatzeko produktuek hauskortasunari buruzko datuak; eta webguneak autentifikatzeko softwareek web-orri autentifikatuen eguneratutako zerrendak erabiltzen dituzte; eguneratze horiei guztiei, "Eguneratutako eduki" esaten zaie oro har. Softwarearen Edukien Eguneratzeak jasotzeko eskubidea izango duzu Zure Lizentziak irauten duen bitartean.

3. Produktuaren instalazioa; Beharrezko aktibazioa; Norton Account:

A. Instalazio-prozesuan, Softwareak beste segurtasun-produktuak edo produktu horien eginbideak desinstala edo desgai ditzake, produktu edo eginbide horiek Softwarearekin bateragarriak ez badira edo Softwarearen funtzionamendu orokorra hobetuko bada.

B. Softwarea legez kanpo edo lizentziarik gabe erabiltzea eragozten duten neurri teknologikoak izan ditzake Softwareak. Symantec-ek Symantec bera Software pirateriaren aurka babesteko neurri horiek erabili ahal izango ditu. Softwareak teknologia betearazlea erabil dezake, Softwarea Gailu eta aldi kopuru jakin batez soilik instalatu eta desinstalatu ahal izan dadin. Lizentzia-akordioa eta teknologia betearazle Softwarea aktibatu egin behar izan daitezke, aurrerago Dokumentazioan adierazi bezala. Hala bada, Softwareak epe mugatu batean bakarrik funtzionatuko du, Softwarea aktibatzen duzun arte. Aktibatzerakoan, Softwarea eta Gailua konfiguratzeko aktibazio-kode eskusiboa eska dakizuke. Alfa-zenbakizko kode hori Interneten bidez eskuratu behar da Softwarea jatorrizkoa dela egiaztatzeko. Dokumentazioan aipatutako data baino lehen edo Softwareak eskatzen dizunean aktibatzen ez baduzu, Softwareak funtzionatzeari utziko dio aktibazioa osatu arte. Aktibatu ondoren, Softwareak ohi bezala funtzionatzen jarraituko du. Softwarea Internet bidez aktibatzerik ez baduzu, edo aktibazio prozesuan zehaztutako beste metodo baten bidez, jar zaitez harremanetan (i) Symantec-en Bezeroarentzako Arreta Zerbitzuan, Symantec-ek aktibazioan hornitutako informazioa erabiliz, edo beheko 7. atalean datorrenarekin, edo (ii) Zure Hornitzailearekin, edo Zure Hornitzaileak bidali dizun dokumentazioan datorren entitatearekin, Softwarea Zure Hornitzailetik eskuratu bazenuen.

C. Norton Account. Symantec-en Norton Kontu bat ("Norton Account") beharko duzu Softwarean sartu eta hura erabiltzeko. Kasu horretan, Norton Account-ik ez baduzu, Norton kontu bat sortu beharko duzu, Softwarea erabili ahal izateko. Baliteke Norton kontu bat behar ez izatea Softwarea atzitu eta hura erabiltzeko beste erabiltzaile-kontu bat eskatzen dizun Hornitzaile batek ("Hornitzailearen kontua") eman dizunean Softwarea. Zure Hornitzailearekin transakzio dokumentazioa ikusi Softwarea atzitu eta erabiltzeko Norton Kontua edo Hornitzailearen kontua beharko duzun jakiteko. Zure erantzukizun osoa da zure Norton Account-en edo Hornitzailearen kontuaren pasahitza isilpean gordetzea. Gainera, Zure Eskubideak Akordio honen arabera Softwarearena transferitzen badituzu, Zure sarbidea, edo haren kudeaketa, Zure Norton Kontuaren Software transferituaren lizentzia-gakoa ere utzi beharko duzu. Jarri harremanetan Symantec-en Bezeroentzako Zerbitzuarekin edo sar zaitez aurrerago adierazitako Symantec-en Laguntza orrian.

4. Enpresa-bezeroekiko erantzukizuna:

Bezeroa bazara, 4. atal honetan adierazitakoa ez zaizu aplikatzen, Zure lurraldeko lege aplikagarrietako xedapen batzuk Softwareari ematen diozun erabilerari (nahiz eta erabilera hau negozio, merkataritza edo helburu profesionaletarako ez izan) aplikagarriak diren kasuetan izan ezik. Horren orde, irakurri 5. atala.

Enpresa eta bezeroa bazara (adibidez, Softwarea negozio, truke edo ogibide baten jarduerekin erlazionatuta erabiltzen baduzu ("Enpresa-bezeroa")), 4. atal honetako adierazpenak aplikatzen zaizkizu (Softwarea onartu ala ez).

A. LEGEAK ONARTZEN DUEN NEURRIAN, SYMANTEC EDO HAREN LIZENTZIADUNAK EZ DIRA ERANTZULEAK IZANGO (AXOLAGABEKERIA, KONTRATU EDO BESTELAKO KASUETAN) IRABAZI, SARRERA, ENPRESA-KONTRATUAK, AURREZKI AURRERATUAK GALDU EDO DATU OKERRAK DAUDENEAN SOFTWAREA GAIZKI ERABILI DELAKO, EDO ONDORIOZKO KALTE BEREZI, ZEIHAR EDO ANTZERAKOETAN, SYMANTEC-EK KALTE HORIEK GERTA ZITEKEELA OHARTARAZI DUENEAN ERE.

B. APLIKATUKO DEN LEGEAK BAIMENTZEN DUEN NEURRIAN, SYMANTEC-EN EDO BERE LIZENTZIADUNEN ERANTZUKIZUNA EZ DA IZANGO APLIKATUKO DEN ZERBITZUAREN ALDIAREN GATIK ORDAINDU DUZUNA BAINO HANDIAGO.

C. Symantec erantzulea izango da zure aurrean, mugarik gabe, (a) Symantec-en axolagabekeriaren ondorioz hiltzen bazara edo zauri edo lesioak sortzen bazaizkizu edo (b) Symantec-ek iruzurreko jarrera izan duelako kalteak edo galerak izan badituzu.

5. Bezeroekiko erantzukizuna:

Bezeroa bazara, 5. atal hau aplikatzen zaizu. Mesedez, irakurri arretaz. 4. atala ez zaizu aplikatzen Enpresa-bezeroa bazara. Symantec erantzulea izango da Zure aurrean (a) Symantec-en axolagabekeriarengatik zauriak edo heriotza gertatzen denean edo (b) Symantec-en iruzurrarengatik galerak edo kalteak jasaten dituzunean.

A. 5. Ataleko aurreko baldintzei jarraikiz, Symantec ez da izango Symantec-ek Lizentzia-akordio hau urratzeagatik aurreikusi ezin diren ondoriozko galeren erantzule. Bezeroa izanda, Softwareari ematen diozun erabilera ez-komertziala izango da. Symantec, beraz, ez da erantzule izango Softwarearen zure erabilerak edo erabiltzeko ezgaitasunak eragindako huts handien ondoriozko diru-sarreraren edo irabazien galeren, aurrezpen aurreratuen, kontratuen edo denboraren aurrean.

B. Zure erantzukizuna izanen da ahalik eta galera gutxien izateko urratsak hartzea.

6. Esportazio-araudia:

Badakizu Softwareak eta hari lotutako datu eta zerbitzuak (oro har, "Kontrolatutako Teknologia") Estatu Batuetako inportatze eta esportatze legeak bete beharko dituztela, are zehatzago AEBko Esportatzeko Administrazio Arauak (EAR), eta Kontrolatutako Teknologia inportatzen edo berresportatzen den herrialdeko legeak. Ados zaude lege garrantzitsuak betetzearekin, eta ez duzu Kontrolatutako Teknologiarik esportatuko AEBko legeen aurka edo esportatzea debekatuta dagoen edo esportatzeko lizentzia edo gobernuaren baimena behar duzun herrialde, erakunde edo pertsoneri esportatuko. Debekatuta dago Symantec produktuak Kubara, Ipar Korea, Iranera, Siriara edo Sudanera esportatzea, baita merkataritza isun garrantzitsuak ezarri zaizkien herrialdeetara ere, Afganistan eta Irak barne. **DEBEKATUTA DAGO SYMANTEC PRODUKTUAK ERABILI EDO EMATEA, BESTEAK BESTE, HURRENGOekin LOTUTAKO JARDUERENTZAT: MATERIAL KIMIKO, BIOLOGIKO EDO NUKLEARRAK DISEINATU, GARATU, FABRIKATU, SAIAKERAK EGIN ETA PROBATZEKO, EDO BAITA MISILAK, DRONAK EDO ARMAK EDO SUNTSIPEN HANDIKO ARMAK GARA DITZAKETEN ARMAK ERAMAN DITZAKETEN ESPAZIO-ONTZIAK, AEBKO LEGEAK BETAZ.**

7. Orokorra:

A. Jarraituko den legeria.

Lizentzia-akordio hau Ingalaterra eta Galeseko legeek zuzenduko dute. Lizentzia-akordio honetako ezerk ez dizkizu gutxituko izan ditzakezun eskubideak, Zure lurraldean kontratu bidez salbuetsi ezin diren bezeroaren babeserako legeek edo dagozkion beste legeek bermatzen badituzte.

B. Akordio osoa.

Baldintza hauek dira Zure eta Symantec-en artean Softwarearen inguruko akordio guztia eta: (i) gai horrekin lotutako aurreko ahozko edo idatzizko jakinarazpen, proposamen eta ordezkaritza guztiak ordezkatzeko ditu; eta (ii) alderdien arteko aurrekontuen, eskaeren, onarpenen edo antzerako komunikazioetan ez-adostasunik edo baldintza osagarriarik balego, hauxe gailenduko da. Izan ere, Lizentzia-akordio honetako ezerk ez dizkizu gutxituko izan ditzakezun eskubideak, Zure lurraldean kontratu bidez salbuetsi ezin diren bezeroaren babeserako legeek edo dagozkion beste legeek bermatzen badituzte. Symantec-ek Lizentzia-akordio honi bukaera eman ahal izango dio Lizentzia-akordio honetan bildutako zehaztapenak urratzen badituzu (urratze tribialak edo ondoriorik ez dutenak izan ezean) eta, hori gertatuz gero, Softwarearen eta Dokumentazioaren inguruko kopia guztiak erabiltzeari utzi eta suntsitu beharko dituzu. Bermeen eta kalteen eta erantzukizun-mugen inguruko lege-oharrek indarrean jarraituko dute hau bukatu ondoren ere.

Lizentzia-akordio honen inguruan galderarik baduzu edo, edozein arrazoiarengatik, Symantec-ekin harremanetan jarri nahi baduzu, idatzi Symantec-en Bezeroarentzako Arreta Zerbitzura, 5689 PO, Dublin 15, Irlanda edo sartu Symantec-en Laguntza Orrian www.symantec.com webgunean.

ZEHAZTAPEN ETA BALDINTZA GEHIGARRIAK. Zure Softwarearen erabilera azpiko arau eta baldintzen menpe dago, aurretiaz adierazitakoenez gain.

8. Pribatutasuna; Datuen babesa:

Softwarea aldeztu aurretik Zure Gailuan instalaturik bazegoen, beltzez dauden hurrengo baldintzak ezarriko zaizkizu:

Zure gailuaren hasierako konfigurazioa egiten denean eta Zure Norton produktua abian jartzen denean, Symantec-ek (ikus harremanetarako datuak behean) eta Zure Norton produktuak hurrengo datuak bilduko ditu:

- Zuk emandako harpidetza-informazioa;
- Zure Gailutik bildutako hardware, sistema, aplikazio eta sare-konexioko datuak, Norton softwarearen instalazio eta operazioen egoerari buruzko informazioa barne.
- Gailuari buruzko datuak eta Interneten erabilerari buruzkoak;
- Konfigura dezakezun gurasoen kontroleko informazioa eta ezarpenak, Zure Norton produktuan funtzio horiek erabilgarri baldin badira.

Datu kategoria hauek bilketa beharrezkoa eta ezinbestekoa da (a) Zure eta Symantec-en arteko kontratuaren baldintzak prestatzeko eta (b) Zure Gailuan aurre-instalaturako Norton Softwareak behar bezala funtzionatzeko. Zure datuak Softwarearen azken erabiltzailearen lizentzia-gakoak eta Softwarea ematean parte hartuko duten Symantec-en erakundeetara eta Symantec-en hornitzaileetara transferituko dira. Dagozkion eskakizunei jarraiki eta, kasua Zuk bidalitako eskaerak zuzendu eta ezabatzeko eskaerak izan daitezkeela eta, bildutako datuak aipaturiko kontratu-harremana bukatu eta bete arte beharrezkoa den bitartean gordeko ditu Symantec-ek. Nahi duzunean, Symantec-ekin jar zaitezke harremanetan Zure datu pertsonalak zuzentzea edo ezabatzea eskatzeko eta, dagokionean, bere prozesatzea muga dezakezu, edo hura prozesatzeko edo eramateko haiek eskatu. Akordio honen "Pribatutasun; Datuen babesa" atalean azalduta dagoen bezala, Symantec-ek bermatzen du legez eskatutako eta baimendutako kontratu-baliabide eta haren inguruko konpromiso guztien bitartez, Zure datuak egokiro babestua daudela Zu zauden herrialde edo zonaldeak dituen datuak babesteko lege ahulagoak dituzten herrialde edo zonaldeetara transferituko baldin badira. Symantec-ek Zure datu pertsonalak erabiltzeko moduarekin pozik ez bazaude, kexa jarri ahal izango duzu Symantec-i edo, Europar Batasuneko herrialdeetan, agintari gainbegirale eskudunari. Symantec-en datuak babesteko praktiken inguruan eta eskubide horien inguruan xehetasun gehiago aurkituko dituzu gure Pribatutasun Atarian (<https://www.symantec.com/privacy>), non nahi duzunean sartu ahal izango zaren, Internetera konektatuta dagoen edozein gailutik.

Atal honetako helburuekin, horrela ulertuko dira Symantec-en erreferentziak:

- Amerikako erabiltzaileentzat, Symantec Corporation, 350 Ellis Street, 7011 Box, Mountain View, CA 94043 USA, telefona: +1 650 527 8000, helbide elektronikoa: privacyteam@symantec.com;
- Europa-Ekialde ertaina-Afrika eskualdeko erabiltzaileentzat, EB/EEE Estatu Kideak barne: Symantec Limited, Ballycoolin Business Park, Blanchardstown, Dublin 15, Irlanda, telefona: +353 1 803 5400, e-posta: privacyteam@symantec.com (EB-ko Datuen Babeserako Ordezkarria: Heward Mills, Fitzwilliam Hall, Fitzwilliam Place, Dublin 2, DPO@symantec.com);
- Asia-Pazifiko-Japonia eskualdeko erabiltzaileentzat, Symantec Singapore PTE Limited, 6 Temasek Boulevard, #21-01, Suntec Tower 4, telefona: Singapur-038986, helbide elektronikoa: APJ_Privacy@symantec.com.

Hurrengo baldintzak erabiltzaile guztientzat balio dute:

Zure konfigurazio eta lehentasunei lotuta, eta hautemandako segurtasun gertakizun eta arriskuen arabera, Softwareak eta gure zerbitzariak informazioen bat bildu dezake erabiltzen diren Gailuei buruz, zeinak potentzialki datu pertsonalak izan daitezkeen, esaterako:

- Norton Community Watch-en parte bezala, gailu eta produktuaren informazioa, internetaren erabilera, malware eta iruzurrezko orrialdeei dagokienez, eta arrisku bat aurkitzen denean, funtzionatzen ari diren prozesuak eta aplikazioak. Datu bilketa hau ez dago diseinatua edo zuzendua Zure datuak biltzeko. Symantec-ek ez ditu datu hauek prozesatuko zeure burua identifikatu daiteken moduan edo intentzionalki Zu identifikatzea, zure ezaugarri pertsonalak ebaluatzea, Zu erretratatzea edo zure buruarekiko erabakiak hartzea bilatzen duen helburuarekin. Symantec-ek beharrezko neurri teknikoak eta antolamendukoak hartuko ditu zure anonimata mantentzeko, Norton Community Watch-ek nahi gabe zure datuak biltzen baditu. Datu hauek beharrezkoak dira Zure Gailuan segurtasun arriskuak identifikatzeko, Norton komunitatearen datuen gehiketaren bitartez, arriskuak gutxitzeko eta erabiltzailearen segurtasuna eta produktuaren funtzionalitatea hobetzeko baita Norton-en ekintza espezifikoak eta konfigurazioak Zure Gailuan duten eraginkortasuna monitorizatzeko beharrezkoa den informazioa emateko. Ulertzen eta onartzen duzu datu bilketa ezgaitzen baduzu, Norton Community Watch-en helbururako barnean, zure gailuaren ezarpen lehenetsiak aldatuz, Symantec-en segurtasun-arriskuak modu eraginkorrean identifikatu eta arintzeko gaitasuna murrizten da eta zu eta zure gailuen arriskuen babesak murriztu ahal izango dituzu.
- Informazio telemetrikoa segurtasun arriskuen inguruan, eta Softwareak iruzurtzat dituen bisitatutako webguneen helbideen URL eta Interneteko Protokoloa (IP). IP helbide horiek datu pertsonalak berez ez badira ere, zenbait URLk webgune iruzurtuak izan daitezkeen datu pertsonalak izan ditzakete zenbait URLk, eta zure baimenik gabe haiek lortzen saiatu daitezke. Symantec-ek informazio telemetrikoki hori Softwarearen eginbideak emateko helburuarekin bilduko du, Zure datu pertsonalak baimenik gabe biltzetik Zu babesteko, adibidez, eta baita Symantec-en produktuek jarrera maltzurereko eta iruzurrekoak izan daitezkeen webguneak edo Interneteko segurtasun arriskuetatik babesteko duten gaitasuna hobetzeko.
- Norton Webgune Seguruan edo Norton-en Bilaketa Segurua eginbideak aktibatuta badaude, bisitatutako webguneen URLak eta Interneteko Protokolo (IP) helbideak eta baita haien bilaketaren gako-hitzak eta bilaketen emaitzak ere. Informazio telemetrikoki hori eginbide horietatik espero dezakezun arrazoizko babesa emateko helburuarekin bilduko du Symantec-ek, eta webgune bat ikusi aurretik hark izan ditzakeen mehatxu eta arriskuekin lotutako abisuak eta ebaluazioak eskaintzeko ere.
- Malwareak izan daitezkeen exekuta daitezkeen fitxategiak eta exekuta daitekeen edukia duten fitxategiak (macroak dituzten dokumentuak, adibidez), fitxategi horiek instalatzen direnean burutu daitezkeen ekintzen inguruko informazioa barne. Fitxategi horiek Symantec-i bidaliko zaizkio bidalketa-funtzioko Softwarea baliatuz. Bidaltzeko funtzio hori desaktibatu ahal izango da aplikatu ahal izango zaizkien produktuen Dokumentazioan datozen jarraibideei jarraituta. Bildutako fitxategiek datu pertsonalak eduki ditzakete, Zure baimenik gabe malwareek lortutako informazioa bereziki. Symantec-ek halako fitxategiak Symantec-en produktuek malware horiek burututako jarrera maltzur motak detektatzeko gaitasuna hobetzeko, eta Zuri eta gainerako erabiltzaileei etorkizuneko mehatxuen aurrean hobeto babesteko.
- Gailua lehen aldiz konfiguratzeko denean Gailuari emandako izena. Biltzen denean, Symantec-ek izena zerbitzu osagarriak jasotzeko aukeratu duzun edo Softwarearen hainbat funtzio erabiliko dituzun Gailurako kontuaren izen gisa erabiliko du. Kontu-izen hori edonoiz alda dezakezu Softwarea instalatu eta gero eta hala egitea gomendatzen dizugu.
- Egoeraren informazioa Softwarearen instalazioari eta funtzionamenduari buruz. Informazio horrek Symantec-i adierazten dio Softwarea guztiz instalatu den ala ez, eta baita Softwareak akatsen bat aurkitu duen ala ez. Egoeraren inguruko informazioak instalazioan edo errorean Softwareak fitxategiaren edo

karpetaren izena duen informazioa hartzen duenean bakarrik izan ditzake datu pertsonalak. Egoeraren informazioa Symantec-ek biltzen du Symantec-en produktuen funtzionamendua eta instalazioaren arrakasta kopurua ebaluatu eta hobetzeko.

- Softwarearen bitartez Zuk Symantec-i bidalitako spamaren berri emateko edo spam gisa oker sailkatutako mezuen berri emateko mezu elektronikoetan datorren informazioa. Mezu elektroniko horietan datozen metadatuak edo edukiak datu pertsonalak izateko aukera gehiago dituzte, hartzailearen helbide elektronikoak, esaterako, eta Zure baimenarekin bakarrik bidali ahal izango zaizkio Symantec-i, eta inoiz ez automatikoki. Mezu horiek Symantec-i bidaltzen badizkiozu, Symantec-ek bere spamaren aurkako teknologia hobetzeko bakarrik erabiliko dira. Symantec-ek ez ditu datu pertsonal horiek beste batzuekin erlazionatuko edo lotuko.
- Softwareak arazo bat duenean Symantec-i Softwarearen bitartez bidaltzea aukeratu duzun txostenean datorren informazio telemetrikoa. Txostenak Softwarearen eta Zure Gailuaren egoerari buruzko informazioa du, Softwareak arazoa izan zuen unekoa. Zure Gailuaren egoeraren informazioak honako informazio hau izan dezake: sistemaren hizkuntza, herrialdea, eta Gailuaren sistema eragilea, hala nola, Softwareak arazoa izan zuen unean abian zeuden prozesuak, horien egoera eta jarduerari buruzko informazioa eta irekita zeuden fitxategi eta karpetei buruzko datuak. Informazio horrek datu pertsonalak izan ditzake Softwareak arazoa izan zuen unean fitxategiaren edo karpetaren barruan bazeuden. Informazio hori Symantec-i bidaliko zaio Zure baimenarekin inoiz ez automatikoki. Informazio hau Symantec-ek biltzen du aurkitutako arazoa konpontzeko eta Symantec-en produktuen funtzionamendua hobetzeko. Informazio hori ez da beste batekin edo datu pertsonalekin erlazionatuko.
- Interneteko Protokolo (IP) helbidea eta hari lotutako informazio geografikoa edota Multimedia Sarbide Kontrolaren (MAC) helbidea eta Softwarea erabiliko den Gailuko Makinaren ID. Informazio hori Softwarea ongi ibil dadin eta tokian aplikatuko diren eskakizunak betetzeko helburuekin bakarrik bildu eta prozesatuko da, eta baita Symantec-en lizentziaren administrazio helburu legitimoekin ere.
- Telefono mugikor batean: Zure Gailuaren kokapenari buruzko informazioa, lapurreta kontrako funtzioa gaituta badago. Gailuaren kamerarekin egindako argazkiak, kamera erabilgarri eta gaituta badago. Identifikatzaile Unibertsal Bakarra (UUID) zure Gailuaren identifikatzaile moduan sortua, Software eta Zerbitzu moduetarako eta lizentziak administratzeko.
- Telefono mugikor batean: Anonimotasuna ziurtatzen duen hash-a sortzeko, Softwareak IMEIa (International Mobile Equipment Identity) atzitzen du. Hash-a helburu estatistikoetarako ekipamenduaren datuak aztertu eta biltzeko erabiltzen da. Symantec-ek ez du IMEIa biltzen ez gordetzen. Erabiltzaileek SIM txartela aldatzen dutenean ere zerbitzua eskaintzen jarraitu ahal izateko, Softwareak IMSIko (International Mobile Subscriber Identity) aldaketen jarraipena ere egiten du. Symantec-ek ez du IMSIa biltzen ez gordetzen. Goiko informazioa Softwarearen Eduki-eguneratzeak eskuratzeko gai den telekomunikazio-gailua identifikatzeko erabiltzen da. Informazio hau ez da pertsona identifika dezakeen bestelako informazioarekin erlazionatuko, adibidez, Zure kontuaren informazioarekin. Zerbitzua eskaintzeari utzi ondoren datuak barneko ikerketako helburu estatistikoetarako soilik gordeko dira. Symantec-ek datu hauek beste kontratatzaileekin edota datuen prozesadoreekin parteka ditzake kontu-kudeaketaren helburuen beharrezan arabera.
- Telefono mugikor batean: Softwareak funtziona dezan eta lizentzien kudeaketa-helburuetarako Softwarea instalatuta dagoen Gailuaren WiFi-aren MAC (Media Access Control) helbidea.
- Softwarearen funtzionamenduaren inguruko bestelako informazio estatistikoa. Informazio estatistiko horrekin ezingo zaitu identifikatu edo Symantec-ek ezingo du erabili zu identifikatzeko, eta erantsitako formulario gisa prozesatuko da analisiak egiteko eta produktuaren funtzioak hobetzeko.

Garrantzitsua denean, Zure konfigurazio ezarpenen eta lehentasunen arabera, goian adierazitako informazioa beharrezkoa den heinean eta proportzioan bilduko da Adostasun honek hartzen duen Softwarearen eginbideak emateko, mantentzeko, jarraipena egiteko eta etengabe hobetzeko.

Informazioa Estatu Batuetako edo Zu zauden eskualdeak datuak babesteko lege motelagoak dituzten beste herrialdeetara transferitu daitezke (Europar Batasuna barne) eta Symantec-en langileen eta kontratatzaileen eskura bakarrik egon ahal izango dira, goian deskribatutako helburuekin erabiliak izateko. Helburu horietarako, informazioa parteka daiteke beste kide eta saltzaileekin, Symantec-en ordeztutako informazioa prozesatzen dutenean. Symantec-ek beharrezko lege-, antolaketa-urratsak eta teknikoak hartu ditu bildutako informazioa, nazioartean edo hirugarren bati transmititzen bada, beharrezkoa duen babes-maila izan dezan.

Dagokion legearen menpe, Symantec-ek eskubidea gordetzen du Softwareari ematen diozun erabilerarekin zerikusia duen edozein lege-prozesutan, legea betearazteko prozesutan edo gobernuko ikerketekin elkarlanean aritzeko. Horrek esan nahi du Symantec-ek legezko agintari batek, legeak zehaztutako prozedurari jarraituz, eskatutako dokumentuak eta informazioa eman ahal izango duela. Interneteko segurtasun arriskuen arreta, detekzioa eta prebentzioa bultzatzeko, Symantec-ek zenbait informazio parteka dezake ikerketa erakundeekin eta beste software segurtasun saltzaile batzuekin. Symantec-ek ere informaziotik datozen estatistikak erabil ditzake segurtasun-arriskuen joerei buruzko txostenak kaleratzeko eta jarraitzeko.

Software hau erabiltzen baduzu, onartzen duzu Symantec-ek Adostasun honetan aipatutako informazioa bildu, transmititu, bildu, laga eta aztertu dezakeela Symantec-en Pribatasun Adierazpen Orokorrean eta Norton Produktu eta Zerbitzuen gidalerroetan azaldutako helburuekin, zeinak hemen aurki daitezkeen: <https://www.symantec.com/privacy>.

9. Apple® Eskakizunak Softwarea Apple iTunes App Store (“App Store”)-etik jeitsi bada, baldintza hauek onartzen dituzu: (A) Lizentzia Akordioa zu eta Symantec-en artean da bakarrik eta ez Apple, Inc.-rekin (“Apple”) eta Apple-ek ez dauka erantzukizunik aplikazioarekin eta bere edukiarekin; (b) Softwarea Apple produktu batean bakarrik erabil dezakezu iOS sistema operatiboa daukana, zu zeuk daukazuna edo kontrolatzen duzuna eta App Store-rearen Zerbitzu Baldintzetan zehazten diren Erabilpen Arauek onartzen duten bezala; (c) Apple-ek ez du betebeharririk Softwarearen mantentze lanik egiteko; (d) Softwareak arazoak ematen baditu, garantiaren barnean, (i) Apple jakinarazi dezakezu eta Apple-ek dirua itzuliko dizu App Store-rearen bitartez ordainduriko dirua eta (ii) legeak baimentzen duen arabera, Apple-ek ez du izango garantia betebeharririk gehiago Softwareari dagokionez; (e) Apple ez da arduratzen edozein erreklamazio, galera, pasibo, kalte, kostu edo gastu Softwareari edo Zure Jabetzari dakionez eta/edo Softwarearen erabilpenari dagokionez, non barnean dagoen, baina ez mugaturik (i) produktuaren pasiboak edo garantia eskakizunak; (ii) edozein erreklamazio Softwareak ez badu legearekin betetzen (iii) kontsumitzailearen babes- edo antzeko erreklamazioak; (f) Apple-ek ez du inolako hirugarrenen erreklamazioak ikertzeko, defendatzeko, konpontzeko edo deskargatzeko ardura, Softwareak edo zure jabetza eta softwarearen erabilpenak hirugarren horren jabetza intelektualaren eskubideak urratzekotan; (g) Errepresentatzen eta bermatzen duzu (i) Ez zaudela Estatu Batuetako Gobernuaren inongo debekua menpe dagoen herrialde batean edo ez dela Estatu Batuen gobernuaren arabera “

**NORTON LIZENTZIA-
AKORDIOAREN
ZERBITZUEN
GEHIGARRIA**

**ZERBITZU OSAGARRIEN
BALDINTZA ETA ZEHAZTAPENAK**

**1. SAREKO BABESKOPIAK; LAGUNTZA
TEKNIKOA; BERRITZE
AUTOMATIKOA; DIRUA ITZULTZEKO
BERMEA**

GARRANTZITSUA: IRAKURRI ARRETAZ ZERBITZU-AKORDIOAREN BALDINTZAK ETA ZEHAZTAPENAK (“ZERBITZU-AKORDIOA) ZERBITZUAK ERABILTZEN HASI AURRETIK (BEHEAN ZEHAZTEN DEN BEZALA) SYMANTEC KORPORAZIOAK ETA BERE AFILIATUAK (“SYMANTEC”) ZERBITZUAK EMAN NAHI DIZKIZU, ETA ZERBITZUAK ERABILIKO DITUEN ENPRESAK, EDO LEGEZKO ENTITATEAK (BEHEAN “ZU” EDO “ZURE), HURRENGO ZERBITZU-AKORDIOAREN BALDINTZA GUZTIAK ONARTZEN BADITUZU BAKARRIK. HAU ZURE ETA SYMANTEC-EN ARTEKO KONTRATUA DA, LEGEZKOA ETA LEGEAREN BIDEZ BETEARAZ DAITEKEENA. PAKETE HAU IREKIZ GERO, EDO ZIGILUA HAUTSI EDO “ADOS NAGO” EDO “BAI” BOTOIA SAKATUTA, EDO ELEKTRONIKOKI ONARTZEN DUZULA ADIERAZTEN BESTE MODUREN BAT JARRAITUZ, EDO ZERBITZUA ERABILTZEN BADUZU, LIZENTZIA-AKORDIOAREN BALDINTZAK ETA ZEHAZTAPENAK ONARTUKO DITUZU. BALDINTZA ETA ZEHAZTAPEN HAUEKIN ADOS EZ BAZAUDE, SAKATU “UTZI” EDO “EZ” EDO “ITXI LEIHOA” BOTOIA EDO ADIERAZI EZADOSTASUNA, ZERBITZUAK GEHIAGO EZ ERABILI, ETA JARRI HARREMANETAN (i) SALTZAILEA EDO SYMANTEC BEZEROENTZAKO ZERBITZUAREKIN, HARREMANETARAKO 12. ATALEKO XEHETASUNAK ERABILITA, EKITALDI HONERAKO ZERBITZU HAUENGATIK ORDAINDUTAKO ZENBATEKOA NOLA ITZULTZEA LORTU JAKITEKO (BEHEAN ADIERAZIA) (BIDALKETA, ERABILERA ETA ZERGAK IZAN EZIK, BIDALKETA, ERABILTZEA ETA ZERGAK ITZULTZEN DITUZTEN HERRIALDE ETA ESTATUETAN IZAN EZIK) NAHI DUZUNEAN, URTEKO HARPIDETZA EROSI DENETIK HIRUROGEI (60) EGUNEKO EPEAN, EDO HOGEITAMAR (30) EGUNEKO EPEAN HILEKO HARPIDETZA KASUETAN, EDO (ii) ZURE HORNITZAILEAREKIN (BEHEAN ZEHAZTUA) ZERBITZUA HORNITZAILEAREN BITARTEZ LORTU DUZUNEAN DIRUA ITZULTZEA NOLA LORTU JAKITEKO.

Zerbitzu-hitzarmen honen arabera, Symantec-ek honako zerbitzu hauek eskaintzen ditu ("Zerbitzuak") Zerbitzu Hitzarmen hau guztiz deskribatzen den moduan:

1. Lizentzia murriztapenak Zure erabilpen propiorako zerbitzuak bakarrik erosi ditzakezu eta ez erabilpen komertzial batetarako. Debekaturik dago salmenta komertzialak egitea. Ezin duzu hau egin eta ezin diozu inori eman hau egiteko baimena:

- A. zerbitzuen zati baten azpilitentzia erabili, errentan eman edo laga;
- B. zerbitzuaren alderantzizko ingeniari-tza, deskonpilatzea, desmuntatzea, eraldatzea, itzultzea edo Softwarearen jatorri kodea ezagutzeko edo zerbitzuetatik lan eratorri sortzen saiatzea.
- C. zerbitzuak hornitu, eskaini edo eskuragarri jartzea instalazioen kudeaketa, ordutegi partekatze, zerbitzu hornitzaile edo zerbitzuak emateko bulegoen akordioen zati gisa,
- D. Zerbitzuak Zerbitzu-akordioak edo legeak zehaztutakoaren arabera baimenduta ez dagoen moduren batea erabiltzea.

Zerbitzuak hirugarrenen funtzioak ekar ditzakete, edo hirugarrenen webgune bateko edukira sarbidea izan dezakete. Eginbide, funtzio eta eduki horiek hirugarren zerbitzuen baldintzen eta pribatutasun-gidalerroen mendekoak izango dira.

2. Zerbitzuaren denboraldiak

“Lizentzia-aldia” has daiteke (a) Softwarea ordenagailuan, ingurune birtualean edo gailu mugikorrean lehenengoz instalatu edo erabiltzen duzunean (“gailua”), edo (b) Lizentzia-akordioa onartzen duzun egunean, edo (c) Zure Softwarea Nortonen lineako dendan erosi baduzu, erosketa egin zenuen eguna, edo (d) Softwarea produktu anitzen eskaintzaren parte gisa jaso baduzu anitz horien paketearen erosketa burutu den egunean edo, (e) Softwarea erabiltzeko eskubideak Symantec-en Lizentzia-akordio honetan deskribatutako Softwarea erabiltzeko eskubideak Symantec-en baimena duen hornitzaile batetik lortu badituzu (“Hornitzailea”), Hornitzaile horrek zehaztutako egunean. Zerbitzuak eman zizun banatzaile, birsaltzaile edo Hornitzaile baimendutik eskuratutako Dokumentazioan edo dagokion den transakzio dokumentazioan zehazten dena izango da. Zerbitzu-aldiaren amaieran Zerbitzuak automatikoki desaktiba daiteke, funtzionatzeari utz diezaion. Halaber, Softwarearen eginbide edota eduki-eguneratzeak jasotzeko eskubidea galduko duzu, Zerbitzu-aldia berri ezean. Zerbitzuak berrietzeko harpidetzak (i) Symantec-en laguntza politikaren arabera egongo dira erabilgarri, zeina https://support.norton.com/sp/en/us/home/current/solutions/v74023230_EndUserProfile_en_us webgunean ikus daitekeen, edo (ii) zure Hornitzaileak emango dizkizu Hornitzaile horren politiken arabera, Zerbitzuak zure Hornitzailetik lortu baduzu.

3. Edukiaren Eguneratze Automatikoak:

A. Eskubidea izango duzu Zerbitzuaren funtzio eta bertsio berriak jasotzeko Symantec-ek, hark nahi duenean, funtzio eta bertsio horiek Zure Zerbitzu Aldian zehar erabilgarri jartzen dituenean. Symantec etengabe ari da lanean bere produktu eta zerbitzuen erabilgarritasuna eta funtzionamendua hobetzeko. Zerbitzuak hobetze aldera, eta Zerbitzuen azken bertsioa emateko, Adosten duzu Symantec-ek Zerbitzuak nahi duenean aldatu ahal izango dituela. Ados zaude Symantec-i eguneratze eta bertsio berriak zuri bidaltzearekin. Gainera, Symantec-ek Zerbitzuaren zure erabilerari lotutako baldintzak eta zehaztapenak alda ditzake eguneratze eta bertsio horiek islatzeko, eta eguneratutako baldintza horiek onartzen dituzu zuk. Aldaketa horiek onartu ez badituzu, Zerbitzuak ondoren erabiltzen jarraitzeko, berrikusitako baldintzak onartu beharko dituzu.

4. Beharrezko aktibazioa; Norton Account:

A. Neurri teknologikoak egon daitezke Zerbitzuen lizentziarik gabeko edo legez kanpoko erabilera saihesteko. Symantec-ek Symantec bera Zerbitzuak pirateriaren aurka babesteko neurri horiek erabili ahal izango ditu. Zerbitzu-akordioa eta teknologia betearazle Zerbitzuak aktibatu egin behar izan daitezke, aurrerago Dokumentazioan adierazi bezala. Hala bada, Zerbitzuek aldi batez funtzionatuko dute, Zerbitzuak Zuretzat aktibatu aurretik. Dokumentuetan zehazten den aldi mugatu horretan aktibatzen ez baduzu, edo Zerbitzuek baztertzen bazaituzte, Zerbitzuak bertan behera geratuko dira aktibazioa burutu arte; kasu horretan, Zerbitzuak berrezarriko dira. Zerbitzuak Internet bidez aktibatzerik ez baduzu, edo zehaztutako beste metodo baten bidez, jar zaitez harremanetan (i) Symantec-en Bezeroentzako Arreta Zerbitzuan, Symantec-ek aktibazioan hornitutako informazioa erabiliz, edo beheko 12. atalean datorrenarekin, edo (ii) Zure Hornitzailearekin, edo Zure Hornitzaileak bidali dizun dokumentazioan datorren entitatearekin Zerbitzuak Zure Hornitzailetik eskuratu bazenuen.

C. Norton Account. Symantec-en Norton Kontu bat ("Norton Account") beharko duzu Zerbitzuan sartu eta hura erabiltzeko. Kasu horretan, Norton Account-ik ez baduzu, Norton kontu bat sortu beharko duzu, Softwarea erabili ahal izateko. Baliteke Norton kontu bat behar ez izatea Zerbitzuak atzitu eta haiek erabiltzeko beste erabiltzaile-kontu bat eskatzen dizun Hornitzaile batek ("Hornitzailearen kontua") eman dizkizunean Zerbitzuak. Zure Hornitzailearekin transakzio dokumentazioa ikusi Zerbitzuak atzitu eta erabiltzeko Norton Kontua edo Hornitzailearen kontua beharko duzun jakiteko. Zure erantzukizun osoa da zure Norton Account-en edo Hornitzailearen kontuaren pasahitza isilpean gordetzea. Gainera, Zure Eskubideak Akordio honen arabera Zerbitzuan transferitzen badituzu, Zure sarbidea, edo haren kudeaketa, Zure Norton Kontuaren transferitutako Zerbitzua ere utzi beharko duzu. Jarri harremanetan Symantec-en Bezeroentzako Zerbitzuarekin edo sar zaitez aurrerago adierazitako Symantec-en Laguntza orrian.

5. Safe Search eta Lineako babeskopia-eginbidea:

Safe Search. Zerbitzuek Bilaketa Seguru funtzioa ere har dezakete, zeinarekin Interneten segurtasunez bilatu ahal izango duzun. Symantec-en bilaketa tresna-barraren bitartez eskura daiteke, besteak beste.

Lineako babeskopia-eginbidea

Softwareak lineako babeskopia-eginbidea ekar dezake, zeinak Zure datuak Symantec-eko sisteman gordetzeko ahalmena ematen duen Internet bitartez Zerbitzuaren Aldian zehar ("Lineako Babeskopia-eginbidea"), Zure Softwarearekin edo Erosketa osagarriarekin daukazu lineako babeskopia espazioaren arabera. Lineako babeskopia-eginbidea erabiltzea aukeratzen baduzu, Softwarearen aktibazio-prozesua osatu beharko duzu eginbidea erabili ahal izateko.

a. Erabilgarritasuna. Lineako babeskopia-eginbidea "bere horretan" eta "erabilgarri dagoen bezala" eskaintzen da, eta ez da Symantec-en ardura izango Zuri kalte-ordainak ordaintzea, Lineako babeskopia-eginbidea izandako etenaldi baten ondorioz kalte edo galerarik jasan baduzu; hura aurretiaz zehaztutako mantentze-lanen, egoera kritiko baten ondoriozko mantentze-lanen edo Symantec-en kontrolpean ez dauden indarren ondorioz izan balitz behinik behin.

b. Erabiltzailearen jarrera eta erantzukizuna; Lege aplikagarriak betetzea. Lineako Babeskopia-eginbidearen erabilera (Zuk aukeratzen duzun datuen transmisioa Lineako Babeskopia-eginbidearen bitartez gordetzeko (“Datuak”)) tokiko, estatuko, nazioko eta nazioarteko lege eta arauak bete beharko dituzte, Estatu Batuetako esportatzeko legeak barne, esaterako. Onartzen duzu Zerbitzuak eman dizkizun baimendutako banatzaileak, birsaltzaileak edo Hornitzaileak emandako Dokumentuetan edo dagozkion transakzioen dokumentuetan zehazten diren baldintza eta zehaztapenen eta arau eta lege aplikagarriak betetzea onartzen duzu eta (i) Lineako Babeskopia Eginbidea legez kanpoko helburuekin erabiliko ez duzula, (ii) jabetza intelektualeko eskubideak edo hirugarrenen beste eskubideak urratuko ez dituzula, ezta legez kanpoko eta besteen pribatutasuna urra ditzakeen materialik transmititu edo gordeko ez duzula, (iii) beste inoren daturik datuen transmisioa legeak zehazten dituen baimenik gabe Symantec-i Estatu Batuetan gordetzeko transmititu edo gordeko ez duzula, (iv) software birusik edo ordenagailu honda dezakeen kode, fitxategi edo programarik ez duzula transmitituko, troiarrak, harrak edo denbora-bonbak esaterako, (v) Lineako Babeskopia Eginbidea konektatuta duen sarea edo zerbitzariarekin konexioa eten dezakeen ezer ez dugula egingo, edo (vi) Lineako Babeskopia Eginbiderako baimendu gabeko sarbidea lortzen saiaturiko ez zarela, ezta Lineako Babeskopia Eginbidearen beste erabiltzaileen kontuan sartzen edo Lineako Babeskopia Eginbideari konektatutako sistema informatiko edo sareetan sartzeko ere.

Atal honetan xedatutako Lineako babeskopia-eginbidearen erabilerari buruz dituzun betebeharrak Norton Account kontuaren bidez Lineako babeskopia-eginbideari emandako erabilerari aplikatzen zaizkio. Norton Account kontuaren bidez Lineako babeskopia-eginbideari ematen diozun erabileraren arduradun bakarra zara, baita haren bidez transmititutako edo gordetako Datu guztiena ere.

Dagokion legeak baimentzen duen hein handienera, onartzen duzu ordaindu egingo dituzula Symantec-i eta haren sortzaile, adar, afiliatu, ofizial, zuzendari, langile eta agenteei beste edonork ezarritako edozein erreklamazio, eskakizun, kostu, kalte, galera, arduraren edo gastu, abokatuen kuota onargarriak barne, baldin eta Zure Norton Account kontuaren bidez Lineako babeskopia-eginbideari eman zaion erabilerarekin zerikusia badute, eta erreklamazio, eskakizun, kostu, kalte, galera, arduraren edo gastu horiek Zuk Lizentzia-akordio hau haustearen edo arduragabekeriaren edo nahitako jokabide desegokiaren ondorio badira. Kopuru horretan sar liteke, baina hauetara mugatu gabe, erreklamazio, eskakizun, kostu, kalte, galera, arduraren edo gastuak ordaintzearen arduraren, horiek, Zure Norton Account kontua bitarteko, Lineako babeskopia-eginbidearen bidez transmititu edo gorde diren Datuen ondorio badira edo horiekin zerikusia badute.

c. Bertan behera uztea; Etetea. Lineako babeskopia-eginbidea erabiltzeko eskubidea Zerbitzu-aldia amaitzean amaituko da. Symantec-ek berehala eten edo buka dezake Lineako Babeskopia Funtzioaren erabilera Zerbitzuaren Aldian, Zuk baldintza eta zehaztapen hauek betetzen ez badituzu, edo Symantec-ek beteko ez dituzula uste badu (urratze tribalak edo ondorioz ez dutenak izan ezean) edo beste Lineako Babeskopia Funtzio bat gaizki erabiltzeagatik. Zerbitzu-aldia iraungitzearen edo amaitzearen ondorioz:

Symantec-ek behin betiko ezaba dezake Softwarearekin hornitutako lineako babeskopien biltegian gordetako edozein Datu;

Symantec ez dago behartuta Datu horiek gordetzera, Datu horiek Zuri edo beste norbaiti bidaltzera, edo Datu horiek beste babeskopia-zerbitzu edo kontuetara eramatera; eta

ezin izango dituzu Datu horiek bereizita erosi duzun babeskopia-biltegi gehigarrian gorde Zerbitzu-aldia berritzen duzun arte.

d. Askotarikoak. Symantec-ek ez dauka betebeharririk Lineako babeskopia-eginbidearen erabileraren edota Lineako babeskopia-eginbidearen bidez transmititzen edo gordetzen diren Datuen jarraipena egiteko. Aplikagarri den legeak baimentzen duen neurrian eta beheko 10. ataleko xedapenei kalterik egin gabe, Symantec-ek uneoro eskubidea izango du edozein datu edo informazio kontrolatzeko, aztertzeko, atxikitzeko eta/edo zabaltzeko, aplikagarri den edozein lege, araudi, legezko prozesu edo gobernuaren eskari betetze aldera; baita Lizentzia-akordio honen erabilerak edo ustezko ez-betetzeak ikertzeko eskubidea ere.

6. Laguntza teknikoa:

Laguntza teknikoko zenbait eginbide Softwarearen barruan etor daitezke, zeinak teknikari baten laguntza txat bidez ere dakarren, urrutiko ordenagailu batetik konektatutako agente tekniko laguntzaile baten bidez (Softwarearen barruan eskainitako laguntza tekniko horri buruz gehiago jakiteko, ikus Zerbitzuen Adostasun honetan "Laguntza Teknikoa" atala). Eginbide horiek eskaintzen badira eta horrelako Laguntza tekniko erabiltzea aukeratzen baduzu, ondorengo baldintzak aplikatzen dira. Laguntza tekniko hori Symantec-ek nahi duelako eman daiteke, berme edo garantiarik gabe, edo Zure jurisdikzioko kontsumitzaileen legeen arabera bestelako garantiarik gabe, zeinak ezingo dira baztertu edo nola edo hala mugatu. Laguntza tekniko jaso aurretik, zure datu, software eta programen babeskopia egitearen arduradun bakarra zara. Laguntza tekniko eskaintzen den bitartean, Symantec-ek Laguntza tekniko haragoko arazo teknikoren bat dagoela erabaki dezake. Symantec-ek, bere erabakimen hutsean, edozein Laguntza tekniko ukatzeko, amaitzeko edo bertan behera uzteko eskubidea gordetzen du.

7. Norton-en Berritze Automatikorako Zerbitzua:

Norton-en harpidetzan Berritze automatikorako zerbitzua sartzen da: Zerbitzuaren Aldiaren bukaeran, Zerbitzua berrituko da eta Zure ordaintzeko metodoaren arabera berrikuntza prezioa automatikoa (zergak barne), Zuk ezer gehiago egin behar gabe. Erosketa egin ondoren, edozein unetan alda ditzakezu zure Harpidetzaren ezarpenak. Berritze automatikorako zerbitzua ere bertan behera utz dezakezu manage.norton.com helbidean. Urteroko berritze automatikorako zerbitzuaren zenbatekoa itzuli egin daiteke, erosketa egiten den egunetik zenbatzen hasita, gehienez ere, hurrengo hirurogei (60) egunetan. Norton-i erositako produktuei dagokien dirua itzultzeari buruz informazio gehiago nahi izanez gero, ikus Norton-en itzulketa-politika.

8. Sare pribatu birtuala ("VPN") Zerbitzua

Zerbitzuek VPN ezaugarria izan ditzakete ("VPN zerbitzua") VPN zerbitzua internet bidez kontrolatzen da eta bere barnean Symantec-en zerbitzariekin elkar eragiten duten bezero softwarea Zure gailuan instalaturik egon daiteke (edo hirugarren kontratista baten zerbitzariak). Honen bitartez konexio pribatua izan dezakezu. Hemen eskainitako zerbitzu guztia edo zati bat hirugarren batek eskaini dezake, sareren azpiegitura barne. Bezeroaren softwarea zure gailuan Interneten hedatzen den zerbitzariaren sare-azpiegiturekin konektatzen da eta Symantec eta beste zerbitzu hornitzaileek kudeatutako zerbitzu gisa erabiltzen dute. Bezeroaren softwarearen zure erabilpena lizentzia-kontratuak arautzen du.

A. Onarturiko erabilpena

(I) Zure Norton Account kontuaren pasahitzaren pribatutasuna gordetzearen arduradun bakarra Zu zara. Eta zu zeu izanen zara arduraduna Norton Account-ean egiten diren jardueretaz (Symantec-ek egindakoa edo baimendutako edozein jarduera izan ezik).

(ii) Zerbitzuarekin erlazionatutako jokabideen erantzule bakarra izango zara. Bereziki Onartzen duzu Symantec-ekin batera jardungo duzula betetzeko eta/edo saihesteko Digital Millennium Copyright Act-aren urraketa potentzialak edo antzeko legeak Europar Batasunaren Zuzendaritza aplikazio nazionalak 2001/29/EC dioenaren arabera Europar Parlamentukoa eta 2001eko maiatzaren 22ko batzarrean erabakitakoa, eskubideen eta eskubideen inguruko

zenbait alderdi harmonizatzeko informazioaren gizarrean. Erresuma Batuak hauek Copyright, Designs and Patents Act 1988-aren barnean daude.

Gainera, ez duzu zerbitzua erabiliko:

- a. Edozein lege edo arau apurtzeko edo aplikagarriak diren lege edo araudien urraketa sustatzeko;
- b. Iraugarria den materiala igotzeko edo bidaltzeko;
- c. Modu iruzurrekoan;

- d. Zurea ez den edo jabetza intelektualaren eskubidea urratzen duen materiala igotzeko edo bidaltzeko.
- e. pribatutasuna, jabetza intelektuala, konfidentzialtasuna edo kontratu edo beste eskubide batzuk urratzen duen modu batean;
- f. erabilera edo beste edozein politika edo termino eta baldintza, edozein sistema informatiko, sarearen edo webgunearen erabilerari aplikatzen zaizkion urratzen edo debekatu egiten duen modu batean;
- g. Difamatzeko, bortxatzeko, erasotzeko, mehatxatzeko edo besteen lege eskubideak urratzeko edo besteen pribatutasuneko eskubideen inbasioa ekiditeko;
- h. Birusen bat edo ordenagailuarentzat kaltegarria den koderen bat daukan dokumenturen bat igotzea edo bidaltzea, Troianoak, zizareak edo denbora-bonbak bezala;
- i. Baimenik gabeko iragarkiak, promozio materialak, “zabor mezuak”, “spam”, “kateak”, “eskema piramidalak” edo beste motak igotzea edo bidaltzea;
- j. Zerbitzuan, zerbitzailearen erabiltzaileen kontuetan edo ordenagailu sisteman edo zerbitzura konektaturik dagoen sarean baimenik gabe sartzea; edo beste modu batean zerbitzuarekin interferitu;
- k. Softwarean edo zerbitzuan copyright edo beste jabetza-eskubideak ezabatu;
- l. Zerbitzua edo softwarean modu komertzial batean erabili, Softwarea eta zerbitzuak erabilera pertsonalerako baitira;
- m. ezabatu, saihestu, desgaitu, kaltetu edo bestela Softwarearen edo Zerbitzuaren segurtasunarekin erlacionatutako funtzioak eragotzi, Softwarea erabiltzeko edo kopiatzeko eragozten edo murrizten duten funtzioak edo Zerbitzuaren erabileraren mugak betetzen dituzten ezaugarriak.
- n. alderantzizko ingeniari, deskonpilatu, desmuntatu edo bestela zerbitzuaren edo softwarearen iturburu-kodea edo haren zati bat aurkitzen saiatu, salbu eta lege aplikagarriak espresuki baimentzen duen neurrian soilik;
- o. Softwarean edo zerbitzuan edo honen zati batean oinarrituriko lanak aldatu, egokitu, itzuli edo sortu; salbuespen gisa eta bakarrik aurreko murrizketa legeak debekatzen badu; edo

Ulertzen duzu Symantec-en ahaleginak edo zerbitzu-hitzarmen honetan dauden baldintzak direla eta, iraungarria edo desegokia den materiala aurkitu dezakezula VPN zerbitzua erabiltzerakoan eta horren arabera, VPN zerbitzua erabiltzen duzu honen jakinaren gainean egonda.

(iii) Aldaketak VPN zerbitzuan; aldaketak VPN zerbitzuaren baldintzetan. .Eskubidea izango duzu VPN Zerbitzuaren funtzio eta bertsio berriak jasotzeko Symantec-ek, nahi duenean, funtzio eta bertsio horiek Zure Zerbitzu Aldian zehar erabilgarri jartzen dituenean. Symantec etengabe ari da lanean bere produktu eta zerbitzuen erabilgarritasuna eta funtzionamendua hobetzeko. VPN zerbitzua hobetzeko, Symantec-en egin ahalko du: (i) VPN Zerbitzuen ezaugarriak gehitu, aldatu edo ezabatu edo (ii) aldi baterako VPN zerbitzuen erabilera murriztu edo bere erabilgarritasuna mugatu mantentze-jarduerak burutzeko, edozein unetan zuri abisatu gabe. Symantec-ek zerbitzu-hitzarmen honen baldintzak ere eguneratu ditzake eta gomendatzen da Zerbitzu-hitzarmen honen baldintzak noizean behin egiaztatzea hobetu diren jakiteko. VPN zerbitzua erabiltzerakoan zerbitzu-hitzarmen honen baldintza hobetuak onartzen dituzula aintzakotzat hartzen da;

(iv) Bukaera eta etetea Zerbitzu-aldia amaitzerakoan VPN zerbitzua erabiltzeko eskubidea galduko duzu. Gainera, Symantec-ek berehala eten ahalko du zure VPN zerbitzuaren erabilera edozein momentutan zu jakinda edo jakin gabe zerbitzu-hitzarmen honen baldintzak betetzen ez badituzu edo Symantec-ek hola uste badu, edo zure VPN zerbitzuaren erabilpenak Symantec-ek arazo legalak izatea ondorio badu edo besteen VPN zerbitzuaren erabilpena eragozten baduzu (kasu horretan ez da itzulketarik jasoko).

9. Dirua itzultzearen bermea:

Zu bazara Softwarearen eta Zerbitzuen lizentziaren jatorrizko jabea, eta edozein arrazoirengatik guztiz pozik ez bazaude harekin, ez ezazu jarraitu erabiltzen Softwarea edo Zerbitzuak eta jarri harremanetan (i) Softwarea eta Zerbitzuak saldu zizkizun birsaltzaile baimenduarekin edo (ii) gailuan aurretik kargatuta zegoen Software eta Zerbitzuak dituen gailua saldu zizun baimendutako birsaltzailearekin, Softwarea edo Zerbitzua eskaintza baten gailuaren zati baten barruan, edo (iii) Symantec Bezeroarentzako Zerbitzuarekin, Zerbitzuen Adostasun honen 12. atalean adierazitako kontaktuarekin, Zerbitzu Aldi horrengatik Ordaindu zenuen kantitatea itzultzea nola eskatu jakiteko (bidalketa, erabiltzea eta hari dagozkion zergak izan ezik, bidalketa, erabiltzea eta zergak itzultzen diren herrialdeetan ezik) urte baterako harpidetzetan erosketa egunetik hirurogei (60) eguneko epean, urte bateko harpidetzaren berritze automatikaren erosketa egin eta hirurogei (60) eguneko epean, edo hile baterako harpidetza kasuan erosketa-dataren hurrengo hogeita (30) hamar eguneko epean ("Itzulera").

Zalantzarik ez edukitzea, itzulera ez da aplikatuko Softwarea eta Zerbitzuak gure Hornitzaitetik eskuratu badituzu. Gainera, Ordainketa ez da itzuliko lehenago erosi eta itzultitako Norton produktu bera berriro erosi ondoren.

10. Pribatutasuna; Datuen babesa

(a) Zerbitzuak erabiltzen dituzunean, "Pribatutasun-gidalerroak" estekaren bitartez berrikus ditzakezu Symantec-en Pribatutasun Gidalerroak.

(B) VPN zerbitzuaren datu bilketa; datuen babesaren neurriak. Zure VPN Zerbitzuaren erabilerarekin lotuta, Symantec-ek zuregandik datu batzuk gordetze, banatu, transferitu eta prozesatu ditzake. Datu hauek pertsonalak izan daitezke edo zure zerbitzuaren erabilpenari buruzkoak, adibidez, harpideturiko informazioa edo mugikorraren datuak, gehituriko banda zabalaren erabilpena edo aldi baterako datuen erabilpena. Datu hauek bildu behar dira (a) gaitu, hobetu eta zerbitzuak emateko edo zu mantendu/ sostengatzeko (eta Symantec-ek hirugarren bat gehitu dezake egiteko); (b) produktuaren erabilpena ulertzeko eta erabiltzaileen esperientzia hobetzeko produktu eta zerbitzuen barnean; eta (c) fakturazioa, sarearen eragiketak eta laguntza ematea. Zerbitzuak instalatu eta / edo erabiliz, onartzen duzu Symantec-ek datu pertsonalak biltzea onartzen duzu, atal honetan deskribatzen den moduan.

(c) Laguntza Teknikoko Zerbitzuak eskatzen dituzunean, hurrengo informazioa bilduko da eta Zure gailuak Symantec-i bidaliko dio Interneteko konexio bidez:

- Zuk Symantec-en zerbitzu ordezkariari telefonoz emandako informazioa edo Symantec-en lineako interfazeari emandakoak Zerbitzuak eskatzean; eta
- Zure gailuak erabiltzen duen sistema eragile mota eta Internet arakatzailea.

Zure Zerbitzuen saioan zehar, Laguntzarako Tresna bat instalatzen bada, hurrengo informazioa bildu ahal izango du Laguntzarako Software Tresnak, eta konexio seguru bitartez, Symantec-i bidaliko dio:

- Eskaneatutako fitxategi kopurua, aurkitutako mehatxuak eta Laguntzarako Software Tresnak konpondutako mehatxuak;
- Aurkitu diren mehatxu motak;
- Laguntzarako Software Tresnak konpondu ez dituen gainerako mehatxu motak eta kopurua;
- Firewall-a aktibo dagoen ala ez.
- Birusen aurkakoa instalatuta dagoen, abian den eta eguneratuta dagoen ala ez;
- Bilaketen informazioa, segurtasuneko eta aldi baterako fitxategien ezarpenak barne

- Laguntza Software Tresnaren Sistema eragilearekin, memoriarekin eta diskoko lekuarekin, proxy konfigurazioarekin eta direktorioko zerrendarekin lotutako sistemaren informazioa;
- Gailuaren segurtasun egoera (ona/justua/eskasa), Laguntza Software Tresnak zehazturik;
- Instalatutako programa eta prozesu aktiboen informazioa;
- Aplikazioaren erregistro-fitxategia eta erregistro-datuak.

(d) Gainera, Sareko Babeskopia Eginbidearen bitartez (dagoenean) aukeratutako datuak Zu zauden herrialdeetan baino datuak babesteko lege malguagoak dituzten herrialdeetako zerbitzarietara transmititzeko edo haietan gordetzeko (besteak beste, Estatu Batuak). Zerbitzari horiek hirugarren prozesadore batzuek kudeatzen dituzte, zeinak legez Zure Datuak babesteko kontratuak dituzten. Erabiltzen ari diren Zure Datuen inguruko galderak badituzu, jar zaitez harremanetan Symantec Bezzeroaren Zerbitzuarekin, [12] Ataleko "Orokorra" kontakturako datuen bitartez.

Goian aipaturiko informazioa beharrezkoa da Zerbitzuak emateko, izan duzun arazoa aztertzeko, diagnostia egiteko eta konpontzeko barne, eta Symantec-en produktuak eta zerbitzuak hobetzeko. Informazioa Estatu Batuetako edo Zu zauden eskualdeak datuak babesteko lege motelagoak dituzten beste herrialdeetara transferitu daitezke (Europar Batasuna barne), baina Symantec-ek neurriak hartu ditu bildutako informazio hori transmititzen bada babes maila egokia izateko.

Symantec-ek bildutako informazio hori laga ahal izango du lege ofizialak behartzen badu, errekerimendu baten edo beste lege-prozesu bati erantzuteko. Interneteko segurtasun arriskuen arreta, detekzioa eta prebentzioa bultzatzeko, Symantec-ek zenbait informazio parteka dezake ikerketa erakundeekin eta beste software segurtasun saltzaile batzuekin. Symantec-ek ere informazioetik datozen estatistikak erabil ditzake segurtasun-arriskuen joerei buruzko txostenak kaleratzeko eta jarraitzeko.

Hemen aurkituko dituzu Symantec-en pribatutasun-gidalerroen xehetasunak:

<https://www.symantec.com/privacy>

11. Informazio garrantzitsu gehiago

11,1. Garantia.

Enpresentzat

LEGEAK AHALBIDETZEN DUEN HEINEAN, (I) GOIKO BERMEAK BESTE GUZTIAK BALIOGABETZEN DITU, BERARIAZKOAK EDO INPLIZITUAK, KALITATE ONAREN ETA HELBURU ZEHATZ BATENTZAKO EGOKITASUNAREN BERMEAK BARNE, SYMANTEC-EK EZ DU BERMERIK EMANGOJABETZA INTELEKTUALEKO ESKUBIDEAK EZ URRATZEAREKIN LOTUTA.

LEGERIA BATZUEK BERMEAK EDO BETEBEHARRAK EZAR DITZAKETE SYMANTEC-EN GAIN, (i) EZIN DIRENAK BAZTERTU, MURRIZTU EDO ALDATU, EDO (ii) EZIN DIRENAK BERE OSOTASUNEAN BAZTERTU, MURRIZTU EDO ALDATU. AKORDIO HAU ESTATUTUEN ZEHAZTAPEN HAUEN MENPE ULERTU BEHAR DA. ESTATUTUEN ZEHAZTAPEN HAU EK APLIKATZEN BADIRA ADOSTASUN HONETAN BESTE ZEHAZTAPEN BATZUK BADAUDE ERE, SYMANTEC-EK APLIKATU DITZAKEENAK, SYMANTEC-EK BERE ERANTZUKIZUNA ZEHAZTAPEN HORIETAN, SYMANTEC-EN ESKURA DAUDEN ZERBITZUAK EMATERA, ZERBITZUAK ORDEZKATU EDO ZERBITZU BALIOKIDEAK EMATERA, ZERBITZUAK KONPONTZERA, ZERBITZUA ORDEZKATZEAREN KOSTUAK ORDAINTZERA EDO BALIOKIDEAK ESKURATZEAREN KOSTUAK ORDAINTZERA EDO KONPONDUTAKO ZERBITZUAK IZATEAREN KOSTUAK ORDAINTZERA MUGATZEN DA, EDO, EDOZEIN ZERBITZURI DAGOKIONEZ, SYMANTEC-EN ESKURA DAUDEN ZERBITZUAK BERRIRO HORNITZERA EDO HORNITUTAKO ZERBITZUAK JASOTZEAREN KOSTUA ORDAINTZERA. IDATZI (I) SYMANTEC-EN BEZEROENTZAKO ARRETA ZERBITZURA (PO BOX 5689, DUBLIN 15, IRLANDA) EDO (II) SYMANTEC-EN ZERBITZU TEKNIKORALEVEL 3, 437 ST KILDA RD, MELBOURNE, VIC 3004, AUSTRALIA EDO SAR ZAITEZ ZURE HERRIALDE EDO ESKUALDEKO WEB-

ORRIAN: <https://www.symantec.com/globalsites/> ZERBITZUAK ORDEZKATZEARI EDO ZERBITZUAREN ALDI HORRENGATIK ORDAINDUTAKOA ITZULTZEA ESKATZEKO, URTEKO HARPIDETZARENGATIK HIRUROGEI (60) EGUNEKO EPEAN EDO HILEKO HARPIDETZA EROSI ETA HURRENGO HOGEITA HAMAR EGUNEKO (30) EPEAN.

Bezero kontsumitzaileentzat

NORTON LIZENTZIA-ADOSTASUNAREN ZERBITZU OSAGARRIEN 7. Atalean Symantec-ek ematen dizkizun bermeez gain eta Zuk kontsumitzaile gisa dizkizun bermeez gain, Symantec-ek ez du ematen Software eta Zerbitzuekin lotutako beste bermerik.

Idatzi (l) Symantec-en Bezeroentzako Arreta Zerbitzura (PO Box 5689, Dublin 15, Irlanda) edo sar zaitez Zure herrialde edo eskualdeko web-orrian: <https://www.symantec.com/globalsites/> zerbitzuak ordezkatzeari edo zerbitzuaren aldi horrengatik ordaindutakoa itzultzea eskatzeko, urteko harpidetzarengatik hirurogei (60) eguneko epean edo, hileko harpidetza erosi eta hurrengo hogeita hamar (30) eguneko epean..

11.2. Erantzukizun mugatua.

11.2.1 Enpresen erantzukizuna:

Kontsumitzailea bazara, 9.2.1 Ataleko hurrengo baldintzak ez zaizkizu aplikatuko Zure jurisdikzioan legeek ezartzen dutena izan ezik, negozio, enpresa edo helburu profesionalekin erabili ezean. Horren ordezt, irakurri 9.2.2. atala.

Enpresa bazara (Zerbitzuak negozio, enpresa edo lan baten barruan erabiltzen baduzu ("Enpresa Bezeroa"), 9.2.1 Atal honetako hurrengo baldintzak aplikatuko zaizkizu (Zerbitzuak onartzen badituzu edo ez).

A. LEGEAK ONARTZEN DUEN NEURRIAN, SYMANTEC EDO HAREN LIZENTZIADUNAK EZ DIRA ERANTZULEAK IZANGO (AXOLAGABEKERIA, KONTRATU EDO BESTELAKO KASUETAN) IRABAZI, SARRERA, ENPRESA-KONTRATUAK, AURREZKI AURRERATUAK GALDU EDO DATU OKERRAK DAUDENEAN ZERBITZUAK GAIZKI ERABILI DIRELAKO (LINEAKO BABESKOPIA FUNTZIOA ETA LAGUNTZA TEKNIKOA ERABILTZEA ESATERAKO) , EDO ONDORIOZKO KALTE BEREZI, ZEIHAR EDO ANTZERAKOETAN, SYMANTEC-EK KALTE HORIEK GERTA ZITEKEELA OHARTARAZI DUENEAN ERE.

B. APLIKATUKO DEN LEGEAK BAIMENTZEN DUEN NEURRIAN, SYMANTEC-EN EDO BERE LIZENTZIADUNEN ERANTZUKIZUNA EZ DA IZANGO APLIKATUKO DEN ZERBITZUAREN ALDIARENGATIK ORDAINDU DUZUNA BAINO HANDIAGOA.

C. Symantec erantzulea izango da zure aurrean, mugarik gabe, (a) Symantec-en axolagabekeriaren ondorioz hiltzen bazara edo zauri edo lesioak sortzen bazaizkizu edo (b) Symantec-ek iruzurreko jarrera izan duelako kalteak edo galerak izan badituzu.

11.2.2 Kontsumitzaileen erantzukizuna:

Bezeroa bazara, 9.2.2. atal hau aplikatzen zaizu. Mesedez, irakurri arretaz. 9.2.2. atala ez zaizu aplikatzen Enpresa-bezeroa bazara. Symantec erantzulea izango da Zure aurrean (a) Symantec-en axolagabekeriarengatik zauriak edo heriotza gertatzen denean edo (b) Symantec-en iruzurrarengatik galerak edo kalteak jasaten dituzunean.

A. 9.2.2. Ataleko aurreko baldintzei jarraiki, Symantec ez da izango Lizentzia-akordio honen Symantec-en urraketengatik aurreikusituz ezin den ondoriozko galeren erantzule. Kontsumitzaile gisa, erabilera ez-komertzialarekin erabiliko dituzu zerbitzuak. Symantec, beraz, ez da erantzule izango Softwarearen zure erabilerak edo erabiltzeko ezgaitasunak eragindako huts handien ondoriozko diru-sarreraren edo irabazien galeren, aurrezpen aurreratuen, kontratuen edo denboraren aurrean.

- B. Zinez gomendatzen dizugu datuen babeskopia maiz egitea.
- C. Zure erantzukizuna izanen da ahalik eta galera gutxien izateko urratsak hartzea.

11.3. Jabetza-eskubideak Symantec-ek Zerbitzuaren, Guneko, Laguntza Software Tresnako jabetza-eskubide guztiak ditu, eta Zerbitzuekin lotutako edo haietan bistaratutako merkataritza-izen, marka komertzial eta zerbitzu-marka guztietan. Ezingo dituzu kendu, ilundu edo ezkutatu Symantec-en Zerbitzuetako edo haien lotutako en copyrighta edo markaren ikurrak edo legendak, edo jabetza-adierazleak. Ezingo duzu alderantzizko ingeniari-tza egin, alderantziz bildu edo gizakiok irakur ditzakegun formularioak murriztu Laguntza Software Tresnan Zerbitzuekin.

11.4. Ezinbesteko kasuak Legeak onartzen duen heinean, Symantec ez da erantzulea izango Symantec-en arrazoizko kontroletik at dauden aurrekusi gabeko gertaeran ondoriozko akatsen kasuan, esaterako, ekintza jainkotiarak, gerrateak (aitortuak ala ez), gatazkak, enbargoak, agintari zibil edo militarren ekintzak, eraso terrorista edo eraso terrorista mehatxuak, suteak, uholdeak, istripuak, grebak, blokeoak, telekomunikazioko sare eta azpiegitura publiko edo pribatuaren akatsak, edo garraio murrizketak, instalazioenak, erregaiarenak, energiarenak, lan edo materialenak. Halako atzerapenik gertatuz gero, ez da Symantec-en erantzukizuna izango kausa hori atzeratu edo saihesten bada.

11.5. Esportazio-araudia. Badakizu Zerbitzuak eta hari lotutako datu eta zerbitzuak (oro har, "Kontrolatutako Teknologia") Estatu Batuetako inportatze eta esportatze legeak bete beharko dituztela, are zehatzago AEBko Esportatzeko Administrazio Arauak (EAR), eta Kontrolatutako Teknologia inportatzen edo berresportatzen den herrialdeko legeak. Ados zaude lege garrantzitsuak betetzearekin, eta ez duzu Kontrolatutako Teknologiarik esportatuko AEBko legeen aurka edo esportatzea debekatuta dagoen edo esportatzeko lizentzia edo gobernuaren baimena behar duzun herrialde, erakunde edo pertsoneri esportatuko. Debekatuta dago Norton harpidetza oro Kubara, Ipar Korea, Iranera, Siriara edo Sudanera esportatzea, baita merkataritza isun garrantzitsuak ezarri zaizkien herrialdeetara ere, Afganistan eta Irak barne. Ondorioz, onartzen duzu Kontrolatutako Teknologiarik ez duzula esportatu edo salduko arma kimiko, biologiko edo nuklearrekin, edo baita misilekin, dronekin edo arma horiek eraman ditzaketen espazio-ontziekin lotutako erabilentzat.

12. Orokorra

A. Jarraituko den legeria. Lizentzia-akordio hau Ingalaterra eta Galeseko legeek zuzenduko dute. Lizentzia-akordio honetako ezerk ez dizkizu gutxituko izan ditzakezun eskubideak, Zure lurraldean kontratu bidez salbuetsi ezin diren bezeroaren babeserako legeek edo dagozkion beste legeek bermatzen badituzte.

B. Akordio osoa. Baldintza hauek dira Zure eta Symantec-en artean Zerbitzuen inguruko akordio guztia eta: (i) gai horrekin lotutako aurreko ahozko edo idatzizko jakinarazpen, proposamen eta ordezkari-tza guztiak ordezkatzeko dituzte; eta (ii) alderdien arteko aurrekontuen, eskaeren, onarpenen edo antzerako komunikazioetan ez-adostasunik edo baldintza osagarri-rik balego, hauxe gailenduko da. Baldintzak berez amaituko dira Baldintzak urratzen badituzu, kasu hauetan, besteak beste: zure Oinarrizko urratzea, ordainketa edo ez transferitzeko obligazioak urratzea, 1 edo 4 ataletan adierazitakoaren arabera, edota Symantec-en jabetza eskubideak urratzea, edo 11.3 edo 11.5 ataletan bildutako inportatze- edo esportatze-legeak urratzea; ondorioz, berehala utzi beharko diozu Zerbitzuak erabiltzeari. Baldintzetan datozen berme eta kalteen lege-oharrek eta erantzukizunaren mugek indarrean jarraituko dute bukatu ondoren ere. Baldintzen inguruan zalantzarik izanez gero, edo edozein arrazoirengatik Symantec-ekin harremanetan jarri nahi baduzu, idatzi (i) Symantec-en Bezeroentzako Arretara, 5689 PO, Dublin 15, Irlanda, edosartu Symantec-en Laguntza orrian, hemen:<https://www.symantec.com/globalsites/> Symantec-ek ez du Baldintzen kopiarik gordeko.

CPS / SUBS_SOS 22.15 / IE

2. NORTON-EN BIRUSEN AURKAKO BABESAREN HITZARMENA

"NORTON-EN BIRUSEN AURKAKO BABESEKO HITZARMENA" IZENENKO ZERBITZUA HAUTATU EDO

ABIARAZI BADUZU (“ZERBITZUA(K)”) SYMANTEC-EN WEBGUNEAREN BITARTEZ (“WEBGUNEA”), HURRENGO BALDINTZA ETA ZEHAZTAPENAK APLIKATUKO DIRA. BALDINTZA HAUEK SYMANTEC ENPRESAREN ETA BERE AFILIATUEN (“SYMANTEC”) ETA ZURE ARTEKO ZERBITZUA ERABILTZEKO LEGE-KONTRATUA OSATZEN DUTE. ZERBITZUAK NORTON-EN ADITUEN LAGUNTZA ESKAINTZEN DIZU 24/7. “ZU” EDO “ZURE” ZERBITZUAK ERABILTZEN DITUEN BANAKOAK ESAN NAHI DU. BALDINTZETAN ZEHAZTUTAKO GIDALERRO ETA MATERIALAK ERREFERENTZIAKO TERMINOETAN BARNERATUKO DIRA. “ONARTZEN DUT” EDO “ONARTU” BOTOIA SAKATU AURRETIK, EDO ZERBITZUAK ERABILTZEN JARRAITZEKO BAIEZKOA EMAN AURRETIK, IRAKURRI ARRETAZ BEHEKO BALDINTZAK.

BALDINTZAK ONARTZEN EZ BADITUZU, SYMANTEC-EK EZ DIZKIZU ZERBITZUAK EMANGO. KASU HORRETAN, HAUXE EGIN BEHARKO ZENUKE: (A) SAKATU “UTZI” EDO PAREKO BOTOIA, EDO ADIERAZI UKO EGITEN DUZULA, ETA (B) UTZI ZERBITZUAK ERABILTZEARI ETA JARRI HARREMANETAN SYMANTEC-EN BEZEROAREN ZERBITZUAREKIN, DAGOKION LIZENTZIA-ADOSTASUNEAN DATOZEN HARREMANETARAKO DATUEKIN.

OHAR GARRANTZITSUA – PRODUKTUA ITZULTZEKO ETA DIRUA ITZULTZEKO

MUGATUTAKO EPEA:

- ZERBITZUAK NORTON.COM WEBGUNEAN EROSI BADUZU, ZERBITZUAK ERABILTZEKO ESKUBIDEAK NORTON HARPIDETZA EROSI DUZUN UNEKO DOKUMENTUETAN ZEHAZTEN DEN EROSKETA-DATAN HASIKO DA.
- ZERBITZUAK NORTON BERRITZE AUTOMATIKORAKO ZERBITZUAREN BITARTEZ ESKURATU BADITUZU, ZERBITZUAK ERABILTZEKO ESKUBIDE IZEN EMAN ZENUEN EGUNEKO DATAN HASIKO DA ETA NORTON-EN EGUNGO HARPIDETZA BUKATZEN DENEAN IRAUNGIKO DU, EDO NORTON-EN BERRITZE AUTOMATIKORAKO ZERBITZUAK ERREGISTROA BALIOGABETZEN DUZUNEAN, LEHENAGO GERTATZEN DENA.

OHARRA: ZENBAIT ESTATU ETA JURISDIKZIOK EZ DUTE BAIMENTZEN DIRUA ITZULTZEKO ESKUBIDEAK, BALDINTZETAN AZALTZEN DEN BEZALA, BERAZ, BALITEKE ZURI EZ APLIKATZEA. ARE GEHIAGO, BALDINTZA HONEK EZ DU ERAGINIK, ITZULTZEKO BESTE ESKUBIDEETAN. “ONARTZEN DUT” EDO “ONARTU” SAKATUZ, EDO ZERBITZUAK ERABILIZ, BALDINTZA HORIEK ONARTZEN EDO HAIEK BAIMENTZEN DITUZU.

Norton-en birusen aurkako babesaren hitzarmena

Birusen Aurkako Babesaren Hitzarmenak Norton-en aditu batek birusak kentzeko zerbitzua hartzen du, eta Norton-en hurrengo harpidetzekin dator: Norton Security (Standard, Deluxe edo Premium), Norton Small Business, Norton Internet Security, Norton AntiVirus, Norton 360 eta Norton 360 Multi-Device. Nahiz eta ohikoa ez den, Zure gailuko birusak kentzerik ez badugu, eskubidea duzu Norton harpidetza edo Norton paketearengatik ordaindutakoa itzultzea eskatzeko (dagokiona) Dirua itzultzea eskatu ahal izateko hurrengo baldintza eta zehaztapenak beteko dira:

- (a) Norton Small Business-era harpidetuta egon ezean, Norton harpidetzak Norton.com helbidetik zuzenean erosi edo berriro beharko behar dituzu, edo Norton-en Berritze Automatikorako Zerbitzua harpidetu Norton harpidetzarekin;
- (b) Itzuliko zaizun dirua Zure egungo Norton harpidetzaren prezioaren arabera izango da. Norton paketea erosi baduzu (Norton harpidetza edo Norton zerbitzuak), Zure egungo Norton paketeak duen prezioaren arabera izango da itzuliko zaizun kantitatea. Edo, erositako paketeak Norton-ena ez den harpidetza/produktua duen Norton harpidetza badu, Norton harpidetzarako Fabrikatzaileak Iradokitako Salmenta Prezioa (MSRP) baino ez da itzuliko, eta ez da izango paketearengatik ordaindutakoa baino gehiago. Ez da beharpenik aplikatuko eta bidalketa, erabiltzea eta zergak itzultzen diren herrialde eta estatuetan izan ezik, ez da bidalketa, erabilera eta zergarik itzuliko;
- (c) Norton harpidetza saltzaile batetik eskuratu baduzu, erosketa-agiria beharko duzu;
- (d) Symantec EZ DA birusen ondorioz gerta daitekeen galera edo hondatzeen erantzulea izango eta ez du horiengatik dirua itzuliko eta
- (e) Birusak kentzeko zerbitzua erabiltzen den herrialdeko lege eta arau aplikagarriek Birusaren Aurkako Babesaren Hitzarmenaren erabilgarritasuna eta eremua muga ego alda dezakete.

1. Zerbitzuak

1,1. Zerbitzuaren ikuspegi orokorra

(1) Aurkezpena Symantec-ek Zerbitzuak Baldintzetan adierazitakoa jarraituz emango du, Zuk Zerbitzuak helburu komertzialekin erabiltzen ez duzun bitartean. Symantec-en zerbitzuen ordezkari bat Zuri Zerbitzuak ematen saiatuko da telefonoz, zuzeneko txat-saio baten bitartez edo posta elektronikoz. Zerbitzuak hobetze aldera, eta legeak onartzen duen heinean bakarrik, Symantec-ek, bere aldetik, noizean behin, bere Zerbitzuen deskribapenak edo eginbideak aldatu ahal izango ditu, halere horrek ez du Symantec-ek dagoeneko ematen dizkizun Zerbitzuen kalitatea edo ezaugarriak aldatuko.

(2) Laguntza Software Tresna eta Urrutiko Sarbidea Zerbitzuen Saio baten zehar, baliteke Symantec-ek hauxe eskatzea: (i) laguntza softwarea zure gailuan instalatzea Laguntza Softwarearen webgunetik deskargatuta, edo (ii) Zure baimena eskatzea urrutiko laguntza tresna erabiltzeko Symantec-en zerbitzuaren ordezkariaren bitartez, Symantec-ek urrutitik Zure gailuan sartu eta hura kontrolatzeko, edo (iii) hirugarren baten laguntzarako softwarea Zure ordenagailuan erabiltzea, zeina Zerbitzua bukatutakoan kenduko den. Laguntza softwarea (hirugarren baten laguntza softwarea barne) eta urrutiko laguntza tresna Symantec-en produktuak dira, edo Baldintzetan “Laguntza Software Tresna” gisa datozen hirugarren lizentzia-emaile edo hornitzaileenak dira. Laguntza Software Tresna arazo zailenak aztertu, diagnosis egin eta konpontzeko erabiliko da, eta sistemaren optimizazio funtzioak hornitzeko. Laguntza Software Tresna Zerbitzuaren zati bat bezala bakarrik erabili ahal izango duzu, eta ez beste edozein helbururekin. Laguntza jasotzea onartzen duzunean, Symantec-i Zure gailua konpontzeko beharrezkoa duen Laguntza Software Tresna oro erabiltzeko baimena ematen ari zara, urrutiko sarbidea barne. Ulertzen duzu Zure gailuan urrutiko sarbidea erabiltzen bada, ez dela Zerbitzuen saiotik softwaretik geratuko; halere, baliteke xml edo flash gisa sortutako txostena geratzea. Gainera, ulertzen duzu Laguntza Software Tresna Zure gailuan instalatzea aukeratu baduzu, Laguntza Software Tresna deskargatzean onartzen duzula Symantec-en Laguntza Software Tresnaren hurrengo erabilera-adostasuna onartzen duzula: ftp://ftp.symantec.com/public/english_us_canada/premium_services/Support_Tool_EULA.pdf (“Laguntza Software Tresnaren Erabilera-adostasuna”). Kasu horretan, Laguntza Software Tresna erabiltzeari utzi eta Zure gailutik kendu beharko duzu Zerbitzuen saioaren bukaeran.

Symantec-ek, bere obligazioa ez bada ere, Zerbitzuen saioaren jarraipena egin eta grabatu ahal izango du, telefono-deiak edo lineako saioak barne, bezeroaren zerbitzua, barne-prestakuntza eta barneko merkatu-azterketak egiteko. Honen bitartez, baimena ematen diozu Symantec-i Zerbitzuen jarraipena egin eta grabatzeko, eta

beharrezkoa edo legeak, arauak edo gobernuaren eskakizunak betetzeko egokia den informazioa erabili eta lagatzeko, Zerbitzuak Zuri edo beste erabiltzaileei emateko eta Symantec-ek etorkizunean eman ahal izango dizkizun Zerbitzu motak hobetzeko. Baimena ematen diozu Symantec-i Zure informazioa besteekin alderatzeko Zu identifikatzeko erabili ezin denean, edo inoren nortasuna agerian uzten ez duen moduan, Zerbitzuak hobetzeko, trebatzeko edo marketin edo sustapen, eta negozio helburuekin.

(3) Zerbitzuen deskribapena, Gutxieneko zehaztapenak Baliteke zenbait gailuk Zerbitzuak ezin jasotzea hasierako probek Zure konexioa gaituta zegoela eta Zure gailuaren ingurunea egokia zela esaten bazuten ere. Zerbitzuak jasotzeko, abiadura handiko Interneteko Konexioa behar da. Symantec-ek Zerbitzua emateko hurrengo gutxieneko zehaztapenak beharko dituzu:

Windows XP 32-Bit (Service Pack 3 edo berriagoa) Professional, Home Edition edo Media Center 2005

- 500 MHz CPU
- 512 MB RAM
- 500 MB libre disko gogorrea
- Super VGA (800 x 600) edo bereizmen handiagoa (bideo egokigailua)
- Administratzaile gisa hasi beharko duzu saioa

Windows Vista 32-bit edo 64-bit (Service Pack guztiak) Home Basic, Home Premium, Business edo Ultimate

- 1 GHz CPU
- 512 MB RAM beharrezkoa (1 GB gomendagarria)
- 500 MB (32-bit) edo 850 MB (64-bit) erabilgarri disko gogorrea

- Super VGA (800 x 600) edo bereizmen handiagoa (bideo egokigailua)
- Administratzaile gisa hasi beharko duzu saioa

Windows 7 32-bit edo 64-bit (Service Pack guztiak) Home Basic, Home Premium, Business edo Ultimate

- 1 GHz CPU
- 512 MB RAM beharrezkoa (1 GB gomendagarria)
- 500 MB (32-bit) edo 850 MB (64-bit) erabilgarri disko gogorrean
- Super VGA (800 x 600) edo bereizmen handiagoa (bideo egokigailua)
- Administratzaile gisa hasi beharko duzu saioa

Windows 8 32-bit (Service Pack guztiak) Home Basic, Home Premium, Business edo Ultimate

- 1 GHz CPU
- 512 MB RAM beharrezkoa (1 GB gomendagarria)
- 500 MB (32-bit) edo 850 MB (64-bit) erabilgarri disko gogorrean
- Super VGA (800 x 600) edo bereizmen handiagoa (bideo egokigailua)
- Administratzaile gisa hasi beharko duzu saioa

Windows 10 (Service Pack guztiak) Home edo Pro

- 1 GHz CPU edo bizkorragoa
- 1 GB (32-bit) edo 2GB (64-bit)
- 16 GB (32-bit) edo 20 GB (64-bit) erabilgarri disko gogorrean
- Microsoft DirectX 9 grafikoen gailua WDDM 1.0 kontrolagailuarekin
- 800x600 bereizmenarekin bateragarria den pantaila
- Administratzaile gisa hasi beharko duzu saioa

Mac® Eskakizunak

- Mac OS X 10.5, 10.7, 10.8 eta 10.9
- Gutxienez 256 MB RAM
- Bezeroak administrazio-sarbidea izan behar du Mac-entzat
- Mac-a Internetera konektatu ahal izango da

Android™

- OS 2.3 bertsioa edo berriagoa (Google™ Play aplikazioa instalatuta izan behar du)

iOS®

- OS 6 edo berriagoa

1.2. Arrazoizko Merkataritza Esfortzua

(I) Symantec-ek merkatuan dagoen arrazoizko esfortzu guztia egingo badu ere Zerbitzuak emateko, Zuk eta Symantec-ek ulertzen duzue eta adosten duzue Zerbitzuko birus guztiak ezingo direla kendu, eta Symantec-ek ez du bermatzen Zure gailuko/gailuetako birus guztiak kenduko dituenik.

(ii) Zerbitzuak ematen dituen bitartean, Symantec-ek erabaki dezake Zerbitzuen eremutik kanpo dagoela arazoa. Symantec-ek arrazoizko esfortzu komertzialak erabil ditzake Zuri beste baliabide egoki bat eskaintzeko; halere, Symantec-ek ez zaitu zuzenean transferituko beste baliabide batera. Lege aplikagarriak uzten duen heinean Symantec-ek eskubidea du Zerbitzuak, nahi duenean, eten edo bukatutzat emateko.

2. Zure erantzukizunak

2.1. Oinarrizko erantzukizunak. Onartzen duzu Zu zarela Zure gailuko legezko lizentziaduna eta Interneteko Zure erabilera zure arriskua dela. Zerbitzuak jasotzea aukeratzen baduzu, (a) arazoaren oinarria den Zure

hardwarera eta softwarera sarbide osoa duzula baieztatzen duzu, eta (b) baita Zerbitzuetan erabil daitekeen software edo hardwarearen datu oro beste baliabide bereizi batean kopiatu duzula baieztatzen duzu. Symantec-i emandako informazio guztia zehatza eta osoa izan behar da, Zure izena eta helbidea barne, eta baita, badagokio, kreditu edo zordunketa txartelen zenbakiak, iraungitze-datak edo Symantec-i eman diozun ordaintzeko bestelako informazioa ere. Gainera, Symantec-i emandako kreditu edo zordunketa-txartelean (daudenean) zure baimenarekin egindako ordainketak kardatzeko baimena ere ematen diozula onartzen duzu.

2.2. Erantzukizun salbuespena. Lege aplikagarriak ahalbidetzen duen heinean, Symantec ez da Zerbitzuen kanpoko arazo batengatik edo Symantec-en edo bere ordezkariak egindako ekintza edo omisioen ondoriozko datuen, programen edo sistema zein sareen erabilera galera edo berreskuratzearen erantzule izango. Symantec-ek Zurekin pasahitz bidez edo sarbidea kontrolatzeari zuzendutako arazoren batean lan egiten badu, Symantec-ek pasahitz hori Zerbitzuak bukatu ondoren berehala aldatzea biziki gomendatzen dizu.

2.3. Ez transferitzea. Zerbitzuak transferiezinak dira. Ezingo dituzu Zerbitzuak erabili zerbitzuen bulego edo banaketa edo partekatze-xedapen batekin erlazionatuta, hirugarren baten izenean, edo Zurea ez den hardware edo software batekin lotuta.

3. Pribatutasuna; Datuen babesa

Gunean sartzen zarenean, gunean datorren "Pribatutasun Gidalerroak" estekaren bitartez berrikusteko erabilgarri dagoen Symantec-en Pribatutasun Gidalerroa aplikatuko da.

Zerbitzuak eskatzen dituzunean, hurrengo informazioa bilduko da eta Zure gailuak Symantec-i bidaliko dio Interneterako konexioaren bitartez:

- Zuk Symantec-en zerbitzu ordezkariari telefonoz emandako informazioa edo Symantec-en lineako interfazeari emandakoak Zerbitzuak eskatzean; eta
- Zure sistema eragile mota eta bertsioa eta Zure gailuak erabiltzen duen Interneteko arakatzaila.

Zure Zerbitzuen saioan zehar, Laguntzarako Tresna bat instalatzen bada, hurrengo informazioa bildu ahal izango du Laguntzarako Software Tresnak, eta konexio seguru bitartez, Symantec-i bidaliko dio:

- Eskaneatutako fitxategi kopurua, aurkitutako mehatxuak eta Laguntzarako Software Tresnak konpondutako mehatxuak;
- Aurkitu diren mehatxu motak;
- Laguntzarako Software Tresnak konpondu ez dituen gainerako mehatxu motak eta kopurua;
- Suebakia aktibo dagoen ala ez.
- Birusen aurkakoa instalatuta dagoen, abian den eta eguneratuta dagoen ala ez;
- Bilaketen informazioa, segurtasuneko eta aldi baterako fitxategien ezarpenak barne
- Laguntza Software Tresnaren Sistema eragilearekin, memoriarekin eta diskoko lekuarekin, proxy konfigurazioarekin eta direktorioko zerrendarekin lotutako sistemaren informazioa;
- Gailuaren segurtasun egoera (ona/justua/eskasa), Laguntza Software Tresnak zehazturik;
- Instalatutako programa eta prozesu aktiboen informazioa;
- Aplikazioaren erregistro-fitxategia eta erregistro-datuak.

Goian aipaturiko informazioa beharrezkoa da Zerbitzuak emateko, izan duzun arazoa aztertzeko, diagnosis egiteko eta konpontzeko barne, eta Symantec-en produktuak eta zerbitzuak hobetzeko. Informazioa Estatu

Batuetako edo Zu zauden eskualdeak datuak babesteko lege motelagoak dituzten beste herrialdeetara transferitu daitezke (Europar Batasuna barne), baina Symantec-ek neurriak hartu ditu bildutako informazio hori transmititzen bada babes maila egokia izateko.

Symantec-ek bildutako informazio hori laga ahal izango du lege ofizialak behartzen badu, errekerimendu baten edo beste lege-prozesu bati erantzuteko. Interneteko segurtasun arriskuen arreta, detekzioa eta prebentzioa bultzatzeko, Symantec-ek zenbait informazio parteka dezake ikerketa erakundeekin eta beste software segurtasun saltzaile batzuekin. Symantec-ek ere informaziotik datozen estatistikak erabil ditzake segurtasun-arriskuen joerei buruzko txostenak kaleratzeko eta jarraitzeko.

Hemen aurkituko dituzu Symantec-en pribatutasun-gidalerroen xehetasunak:
<https://www.symantec.com/privacy>

4. Informazio garrantzitsu gehiago

4.1. Garantia. LEGE APLIKAGARRIAK BAIMENTZEN DUEN HEINEAN ETA GOIKO 1.2 ATALEKO GARANTIARENTZAT IZAN EZIK, SYMANTEC-EK BESTE ORDEZKAPEN, BALDINTZA ETA GARANTIAK UKATZEN DITU, OROTARIKOAK, BERARIAZKOAK EDO INPLIZITUAK, KOMERTZIABILITATE-GARANTIAK, HELBURU ZEHATZ BATENTZAKO EGOKITASUNA EDO JABETZA INTELEKTUALEKO ESKUBIDEAK EZ URRATZEKOAK BESTEAK BESTE. LEGE APLIKAGARRIAK BAIMENTZEN DUEN HEINEAN, SYMANTEC-EK EZ DU BERMATZEN: (I) ZERBITZUAK EDO WEBGUNEAK ZEHAZTAPEN ZURE ESKAKIZUNAK BETEKO DITUZTE; (II) ZERBITZUAK EDO WEBGUNEA ETENGABE, ORDUAN, SEGURTASUNEZ ETA AKATSIK GABE EMANGO DA; (III) ZERBITZUEN EDO WEBGUNEAREN ERABILERAREN ONDORIOZKO EMAITZAK ZEHATZAK ETA FIDAGARRIAK IZANGO DIRA; (IV) ZERBITZUEN BITARTEZ EROSITAKO EDO LORTUTAKO ZERBITZUEN, HARPIDETZEN, PRODUKTUEN EDO INFORMAZIOAREN KALITATEAK ZURE ZEHAZTAPENAK BETEKO DITU; (V) ZERBITZUKO EDO WEBGUNEKO AKATSAK KONPONDU EGINGO DIRA; (VI) BIRUS GUZTIAK KENDUKO DIRA ZERBITZUTIK; EDO (VII) ITZULITAKO ORDAINKETARI DAGOKIONEZ, EPEAK ZURE ESKAKIZUNAK BETEKO DITU. LAGUNTZA SOFTWARE TRESNA OROK, EDO DESKARGATUTAKO MATERIALEK EDO DATUEK, EDO ZUK ZERBITZUEN BITARTEZ ESKURATUTAKO EK, ZURE ERANTZUKIZUNA DIRA. LAGUNTZA SOFTWARE TRESNA "HORRELA" HORNITZEN DA, INOLAKO GARANTIARIK GABE ETA LAGUNTZA SOFTWARE TRESNAREN ERABILERA ADOSTASUNAREN ARABERA. SYMANTEC-EK EZ DITU HIRUGARRENEN PRODUKTUAK BERMATZEN.

4.2. Erantzukizun mugatua. ZENBAIT ESTATU ETA JURISDIKZIOK, EUROPAKO EKONOMIA ESPARRUKO HERRIALDE KIDEAK BARNE, EZ DUTE BAIMENTZEN ERANTZUKIZUNA MUGATZEA EZBEHARREN EDO ONDORIOZKO KALTEEN AURREAN, BERAZ, BALITEKE ONDORENGO MUGAK EDO SALBUESPENAK ZURI EZ APLIKATZEA.

LEGE APLIKAGARRIAK ONARTZEN DUEN HEINEAN, ETA FUNTSEZKO HELBURUA LORTZEN EZ DENEAN, SYMANTEC EZ DA ERANTZULEA IZANGO, (A) ZERBITZUAK EMATEAREN ONDORIOZ IZANDAKO DIRU-GALERA EDO DATUEN GALERARENGATIK, (B) ORDENAGAILUEN ERABILGARRITASUN GABEZA EDO GALERARENGATIK, ZERBITZUAK ERABILTZEAN EDO ERABILGARRI EZ DAGOELAKO GALDUTAKO MEZU EDO TRASMISIO AKATSENGATIK, EDO (C) EDOZEIN ONDORIO, ZEHAR EDO ANTZERAKO GALERA EDO KALTEENGATIK, SYMANTEC-EK GALERA EDO KALTE HORIEK GERTATU AHAL ZIRELA JAKINARAZI DUENEAN ERE. SYMANTEC-EN ERANTZUKIZUNA EZINGO DA INOLA ERE EZ ZERBITZUENGATIK ORDAINDU DUZUNA BAINO GEHIAGOKOA IZAN, EDO BERROGEITA HAMAR DOLARREKOA (50 USD), EDO ZURE MONETAN HARI DAGOKIONA.

4.3. Jabetza-eskubideak Symantec-ek Zerbitzuaren, Guneko, Laguntza Software Tresnako jabetza-eskubide guztiak ditu, eta Zerbitzuekin lotutako edo haietan bistaratutako merkataritza-izen, marka komertzial eta zerbitzu marka guztietan. Ezingo dituzu kendu, ilundu edo ezkutatu Symantec-en Zerbitzuetako edo haien lotutakoen copyrighta edo markaren ikurrak edo legendak, edo jabetza-adierazleak. Ezingo duzu alderantzizko ingeniarietza egin, alderantziz bildu edo gizakiok irakur ditzakegun formularioak murriztu Laguntza Software Tresnan Zerbitzuekin.

4.4. Ezinbesteko kasuak Legeak onartzen duen heinean, Symantec ez da erantzulea izango Symantec-en arrazoizko kontroletik at dauden aurreikusi gabeko gertaeran ondoriozko akatsen kasuan, esaterako, ekintza Jainkotzarrak, gerrateak (aitortuak ala ez), gatazkak, enbargoak, agintari zibil edo militarren ekintzak, eraso

terrorista edo eraso terrorista mehatxuak, suteak, uholdeak, istripuak, grebak, blokeoak, telekomunikazioko sare eta azpiegitura publiko edo pribatuen akatsak, edo garraio murrizketak, instalazioenak, erregaiarenak, energiarenak, lan edo materialenak. Halako atzerapenik gertatuz gero, ez da Symantec-en erantzukizuna izango kausa hori atzeratu edo saihesten bada.

4.5. Esportazio-araudia. Badakizu Zerbitzuak, Softwarearen Laguntza Tresnak eta hari lotutako datu eta zerbitzuak (oro har, "Kontrolatutako Teknologia") Estatu Batuetako inportatze eta esportatze legeak bete beharko dituztela, are zehatzago AEBko Esportatzeko Administrazio Arauak (EAR), eta Kontrolatutako Teknologia inportatzen edo berresportatzen den herrialdeko legeak. Ados zaude lege garrantzitsuak betetzearekin, eta ez duzu Kontrolatutako Teknologiarik esportatuko AEBko legeen aurka edo esportatzea debekatuta dagoen edo esportatzeko lizentzia edo gobernuaren baimena behar duzun herrialde, erakunde edo pertsoneri esportatuko. Debekatuta dago Norton harpidetza oro Kubara, Ipar Koreara, Iranera, Siriara edo Sudanera esportatzea, baita merkataritza isun garrantzitsuak ezarri zaizkien herrialdeetara ere, Afganistan eta Irak barne. Ondorioz, onartzen duzu Kontrolatutako Teknologiarik ez duzula esportatu edo salduko arma kimiko, biologiko edo nuklearrekin, edo baita misilekin, dronekin edo arma horiek eraman ditzaketen espazio-ontziekin lotutako erabilerentzat.

5.

Orokorra

A. Jarraituko den legeria. Lizentzia-akordio hau Ingalaterra eta Galeseko legeek zuzenduko dute. Lizentzia-akordio honetako ezerk ez dizkizu gutxituko izan ditzakezun eskubideak, Zure lurraldean kontratu bidez salbuetsi ezin diren bezeroaren babeserako legeek edo dagozkion beste legeek bermatzen badituzte.

B. Akordio osoa. Baldintza hauek dira Zure eta Symantec-en artean Zerbitzuen inguruko akordio guztia eta: (i) gai horrekin lotutako aurreko ahozko edo idatzizko jakinarazpen, proposamen eta ordezkariak guztiak ordezkatzeko dituzte; eta (ii) alderdien arteko aurrekontuen, eskaeren, onarpenen edo antzerako komunikazioetan ez-adostasunik edo baldintza osagarriarik balego, hauxe gailenduko da. Baldintzak berez amaituko dira Baldintzak urratzen badituzu, kasu hauetan, besteak beste: zure Oinarrizko urratzea, ordainketa edo ez transferitzeko obligazioak urratzea, 2.1 edo 2.3 ataletan adierazitakoaren arabera, edota Symantec-en jabetza eskubideak urratzea, edo 4.3 edo 4.5 ataletan bildutako inportatze- edo esportatze-legeak urratzea; ondorioz, berehala utzi beharko diozu Zerbitzuak erabiltzeari. Baldintzetan datozen berme eta kalteen lege-oharrek eta erantzukizunaren mugek indarrean jarraituko dute bukatu ondoren ere. Baldintzen inguruan zalantzarik izanez gero, edo edozein arrazoirengatik Symantec-ekin harremanetan jarri nahi baduzu, idatzi (i) Symantec-en Bezeroentzako Arretara, 5689 PO, Dublin 15, Irlanda. Sar zaitetz Zure herrialde edo eskualdeko web-orrian: <https://www.symantec.com/globalsites/>. Symantec-ek ez du Baldintzen kopiarik gordeko.

IE VPP Terms/estore ACQ 6.0.2